



AZALAREN LEHIAKETAN PARTE HARTU DUTEN KARTELAK



"INGURUTXO"
JABIER ARANBURU
GARTZIARENA



"PESTAN TENPOAN"
NEREA eta NAIARA
ARANBERRI ZUBIRI



"IRAGANETIK ORAINA"
NEREA eta NAIARA
ARANBERRI ZUBIRI



"BETIKO DOINUAK"
AXUN ARRIBILLAGA
GAZTAÑAGA



"LEITZA DANTZAN"
AXUN ARRIBILLAGA
GAZTAÑAGA

ALKATEAREN AGURRA

Kaixo, herritarrok:

Leitzako pestek eskaintzen diguten arnasaldia iritsi da berriz gurera. Arnasaldia, egun, aste eta hila-beteen joan-etorrian nahi baino estuago eta larriago ibili ondoren, pestek aukera ematen digutelako arnasa hartzeko eta oso bestelako bizipen eta egoerak bizitzeko. Egunerokoan izaten ez dugun aukera izaten dugu pestetan gure hurbilekoekin egoteko, baita ez hain hurbilekoekin ere, beste giro batean, beste aldarte batekin, eta pestak bukatuta ere egunerokoari gogotsu ekiteko erregaia ematen digu. Egitarau hutsa baino askoz ere gehiago dira Leitzako pestak, eta giroaz, jaiaz eta lagunarteaz gozatzeko aukera bikaina da.

Eta pestak goratzen hasiz gero, gozatzeko aukera horrek denontzako aukera izan behar duela ere esan beharko. Izan ere, eta 2023. urtean bagaude ere, oraindik ere pestak lasai eta gustura bizitzeko garaian ez gaude denok berdin. Inork eraso eginen ez dizun lasaitasunarekin ateratzea, edo denontzako otordu nahiz garbiketa lanek etxean erabat lotuko ez zaituztela jakitea, horiek ere pestetako egitarauaren osagai izan beharko lukete eta, jakina, denontzako berdin. Denon borroka da hori.

2023. urtea aipatu dugu. Udal hauteskundeen urtea, hain zuzen ere. Udala berritu da, beraz, eta gaur egun hor gauden hautetsi gehien-gehienak berriak gara. Aurrekoek erakutsitako bidetik eta moduan saiatuko gara gauzak txukun egiten, baita aurtengo pestetan ere. Jakina, pestak gozatzeko modua izan dezagun, norbaitek prestatu behar ditu eta norbaitek egin behar du lan, eta hauxe izan liteke ahalegin eta auzolan horren aitortza egiteko tokia. Eskerrik asko, beraz, aurreko udaleko kide guztiei, pesta batzordeari, herriko eragileei, eta pestak bikainak izan ditzagun lagundu duzuen herritar guztiei.

Gure kulturaren eta izatearen zati garrantzitsua eta esanguratsua dira pestak. Aurtengoak gozatzeko modurik izanen ez dutenak gogoan izanda, goza ditzagun egunez egun, parte hartu dezagun haur, gazte, heldu nahiz helduentzat proposatutako egitarauko ekitaldietan, errespetuz, aldarte onez eta harremanetaz gozatuz. Denok egiten dugu Leitza!

Dabid Anaut Peña
LEITZAKO ALKATEA



Leitzako Udala



atekabeltz
herrigunea



ABUZTUAK 5 LARUNBATA

REPARTO EGUNA

- 14:00** Eskelarien bazkaria Aurrera Elkarte
- 16:00** Auzoz-auzo, Plazaola Aldizkariaren banaketa; trikitilari, txistulari, akordeolari eta gaiteroen laguntzaz



ABUZTUAK 6 IGANDEA

UMEEN EGUNA

- 09:00** Diana txistulariekin
- 10:00** Korporazio txikiak udal ordezkariekin gosalduko du
- 10:30** TXUPINAZOA
- Ondoren** gurpildun zezenen entzierroa
- 11:00** Aurrera Pilota Eskolako gazteak arituko dira plazan
- 11:30-13:30** Denok Bat guraso elkarteak antolaturiko "JOKAI" jolasak plazan
- 17:00** Erraldioen Konpartsa plazatik abiatuko da
- 18:30** Aurrerako Dantzari Txikien emanaldia eta ondoren umeen ingurutxo IREKIA plazan
- Ondoren** goxokiak banatuko dira
- 20:30-22:30** DJ XAIBOR
- 22:30** Suzko zezena



ABUZTUAK 10 OSTEGUNA

PESTA BEZPERA

- 13:00** "Etxera" manifestazioa plazatik Sare Herritarrak deituta
- Ondoren** Kantujira Kuxkuxturekin plazatik
- 13:30** Jubilatuen bazkaria
- 14:30** Kantu-bazkari herrikoia karrapen
- 18:00** TXUPINAZOA eta Plazaola Aldizkariko azalen irabazleei sari ematea
- Ondoren** Incansables Txaranga, txistulariak, Leitzeko Erraldoien Konpartsa eta gaiteroak herrian barrena kalejira eginen dute
- 18:30** LA JODEDERA Labetxeko atarian
- 22:00** Suzko zezena
- 23:00** TRIKIDANTZ
- Ondoren** Incansables Txarangaren gaueko erronda eta LA MIA MARI DJa plazako txoznan
- 00:00** Tekno gaua Atekabeltzen
- 01:00** DJ ZAZE behiko txoznan





ABUZTUAK II OSTIRALA

TIBURTZIO DONEAREN EGUNA

- 08:00** Diana txistulariekin
09:00 Entzierroa eta behiak plazan
10:30 Meza San Migel parrokian
11:00 Hameiketako irekia karrapen
12:00 Aurrera Dantza Taldeko EZPATADANTZARIAK plazan

Ondoren afizionatuen arteko pilota partidak plazan

- 13:00** Aurreratik Incansables Txaranga aterako da
17:00 Leitzako Bertso Eskolako bertsolariak Labetxeko atarin
18:00 Zezenak plazan
19:00 Herri Kirolak plazan

Aizkoran

NEREA ARRUTI / MALEN
BARRENETXEA

OIHANA BARRENA / ANE ZAPIRAIN

Altuerako aizkora

ENEKO SARALEGI

Harria jasotzen

MADDI GESALAGA

OLATZ ESNAOLA

LUR ERREKONDO

Ondoren goxokiak banatuko dira

- 19:30** Incansables Txaranga eta buruhaundiak aterako dira
21:00 Leitzeko Ingurutxoia nahi duen guziarentzat plazan
22:00 Suzko zezena
00:00 GOZATEGI

Ondoren Incansables Txarangaren erronda eta FRESA MORANGO DJa plazako txoznan

Atekabeltzen NAXKER eta LAS SEXPEARES

- Ondoren** DJ MUFFIN plazako txoznan
01:30 DJ AIMAR behiko txoznan



ABUZTUAK 12 LARUNBATA

PESTA BIGARRENA

08:00 Diana txistulariekin

09:00 Entzierroa eta behiak plazan

11:00 Leitzako Erraldoien Konpartsa

Ibilbidea: Herritik Erletara kalejiran dultzainero eta buruhaundiekin eta jarraian Konpartsarekin Amazabal-Patxi Arrazola-Erleta

13:00 Paellada karrapen

13:00 Aurreratik Incansables Txaranga aterako da

17:00 ALARMA MOREA Labetxeko atarin

17:30 Zezenak plazan

19:00 Aurrerako Dantza Taldearen emanaldia plazan

Ondoren goxokiak banatuko dira

Ondoren Incansables Txaranga eta buruhaundiak aterako dira

22:00 Suzko zezena

23:30 BASTARDIX eta ondoren GABENARArekin dantzaldia

Ondoren DJ INFERNU plazako txoznan

00:00 TXOPET, ETXEKALTE eta ONKI XIN Atekabeltzen

01:00 DJ JO TA TXO behiko txoznan

01:00 Incansables Txarangaren erronda

03:30 Leitzeko Ingurutxoa nahi duen guztiarentzako plazan



ABUZTUAK 13 IGANDEA

PESTA HIRUGARRENA

08:00 Diana txistulariekin

09:00 Entzierroa eta behiak plazan

11:00 Leitzeko Erraldioen Konpartsa

Ibilbidea: Herritik Erletara kalejiran dultzainero eta buruhaundiekin eta jarraian Konpartsarekin Huarte Gotzaina eta Plazara

13:00 Txakolin dastaketa eta Incansables Txarangaren emanaldia karrapen

16:30 Zezenak plazan

17:30 Bertsolariak plazan:

Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Agin Laburu, Eneko Lazkoz eta Jone Uria

Ondoren goxokiak banatuko dira

19:00 Pilota partidak Amazabal Pilotalekuan.

Lehenik pilotari profesional ohiak;

Xala / Olazabal - Bengoetxea VI / Mikel Goñi

Bestetik, ADOS enpresaren eskutik pilotari profesionalak;

Iturriaga / Mujika - Zabaleta / Agirre

21:30 Suzko zezena

22:00 Herri aparia plazan

01:00 Incansables Txarangaren erronda

Ondoren Leitzeko Gazte DJ irekia plazako txoznan



ABUZTUAK 14 ASTELEHENA

PESTA LAUGARRENA / GAZTE EGUNA

- 08:00** Diana txistulariekin
- 09:00** Entzierroa eta behiak plazan
- 11:30** Umeentzako aparra plazan
- 13:00** Trikipoteoa eta jokuak
- 13:00** Aurreratik Incansables Txaranga aterako da
- 14:30** Gazte bazkaria karrapen
- Ondoren** bingo musikatua, gazte argazkia eta mojitoa nahi duen guztiarentzat
- 18:30** DISTOPIA Elektrotxaranga herritik Atekara
- 20:00** Goxokiak banatuko dira
- Ondoren** Incansables Txaranga eta buruhaundiak aterako dira
- 22:00** Suzko zezena
- 00:00** ZETAK
- Ondoren** Incansables Txarangaren erronda Atekaraino
- 01:30** DJ LORO behiko txoznan
- 02:00** DJ REIMY Atekabeltzen



ABUZTUAK 15 ASTEARTEA

PESTA BOSTGARRENA

- 08:00** Diana txistulariekin
- 09:00** Entzierroa eta behiak plazan
- 12:00-14:00** Ur txirrista Errekaldeneko atarin
- 12:00** Herri kirolak plazan:
- Aizkora**
- JULEN OLANO / JON REKONDO
- IBAI SOROA / TXOMIN AMUNDARAIN
- Harria:** MIKEL LOPATEGI "URRA" eta XABAT OLAIZOLA
- 13:00** Aurreratik Incansables Txaranga aterako da
- 14:30** Aurrerako bazkideen bazkaria elkartean
- 16:00-19:00** Ur txirrista Errekaldeneko atarin
- 18:00** Entzierroa eta ondoren zezenak plazan
- 19:00** Helduen Ingurutxoa plazan
- Ondoren** goxokiak banatuko dira
- Ondoren** Incansables Txaranga eta buruhaundiak aterako dira
- 22:00** Suzko zezena
- 23:00** JOSELU ANAIK
- Ondoren** "POBREDEMIE" Incansables Txarangarekin



PROGRAMACIÓN DE FIESTAS DE SAN TIBURTZIO

5 de Agosto, sábado

DÍA DEL REPARTO

- 14:00** Comida en el Aurrera
16:00 Reparto del programa de fiestas Plazaola por los barrios del pueblo acompañado por txistularis, trikitilaris, gaiteros y acordeonistas.

18:30 LA JODEDERA en el Aurrera

22:00 Toro de fuego

23:00 TRIKIDANTZ

Después Incansable Txaranga y DJ LaMia Mari en la txozna de la plaza

00:00 Noche tecno en Atekabeltz

01:00 Dj ZAZE en la txozna de abajo

6 de Agosto, domingo

DÍA DEL NIÑO

09:00 Diana

10:00 Desayuno de la corporación txiki con los representantes del Ayuntamiento.

10:30 CHUPINAZO

Después encierro con toros de ruedas

11:00 Partidos de pelota

11:30-13:30 Juegos infantiles "Jokai" organizado por la asociación de madres y padres Denok Bat

17:00 Comparsa de gigantes

18:30 Dantzaris txikis del Aurrera y después Ingurutxo abierto

Después se repartiran caramelos

20:30-22:30 DJ Xaibor

22:30 Toro de fuego

11 de Agosto, viernes

SAN TIBURTZIO

08:00 Diana

09:00 Encierro y vacas

10:30 Misa en la parroquia San Migel

11:00 Almuerzo en el karrape

12:00 Ezpatadantzaris del Aurrera en la plaza

Después partidos de pelota de aficionados

13:00 Incansables Txaranga

17:00 Bersolaris de la escuela Leitza en el Aurrera

18:00 Vacas en la plaza

19:00 Deporte rural

Después se repartiran caramelos

19:30 Incansables Txaranga y cabezudos

21:00 Ingurutxo abierto en la plaza

22:00 Toro de fuego

00:00 GOZATEGI

Después Ronda de Incansables Txaranga y DJ FRESA MORANGO en la txozna de la plaza

NAXKER y LAS SEXPEARES en Atekabeltz

Después DJ MUFFIN en la txozna de la plaza

01:30 DJ AIMAR en la txozna de abajo

10 de Agosto, jueves

VÍSPERA de FIESTAS

13:00 Manifa "Etxera" desde la plaza organizada por Sare Herritarra

Después Pasacalles a cargo de Kuxkuxtu desde la plaza

13:30 Comida de las jubiladas y los jubilados

14:30 Comida popular en el karrape

18:00 CHUPINAZO y entrega de premios

Después Incansables Txaranga, txistularis, comparsa de gigantes y gaiteros recorreran las calles



12 de Agosto, sábado

- 08:00** Diana
09:00 Encierro y vacas
11:00 Comparsa de gigantes de Leitza
13:00 Paellada en el karrape
13:00 Incansables Txaranga
17:00 ALARMA MOREA en el Aurrera
17:30 Vacas en la plaza
19:00 Actuación de los dantzaris del Aurrera
- Después** se repartiran caramelos
Después Incansables Txaranga y cabezudos
- 22:00** Toro de fuego
23:30 BASTARDIX y después romería con GABENARA
- Después** DJ Infernu en la txozna de la plaza
- 00:00** En Atekabeltz; TXOPET, ETXEKALTE y ONKI XIN
01:00 DJ JO TA TXO en la txozna de abajo
01:00 Incansables Txaranga
03:30 Ingurutxo abierto en la plaza

13 de Agosto, domingo

- 08:00** Diana
09:00 Encierro y vacas
11:00 Comparsa de gigantes de Leitza
13:00 Degustación de chacolí e Incansables Txaranga en el karrape
16:30 Vacas en la plaza
17:30 Bertsolaris en la plaza
- Después** se repartiran caramelos
18:30 Partidos de pelota de ex-pelotaris profesionales y a cargo de ADOS, partidos de profesionales en el frontón Amazabal
21:30 Toro de fuego
22:00 Cena popular en la plaza
01:00 Incansables Txaranga
- Después** DJ "abierto" en la txozna de la plaza

14 de Agosto, lunes

- 08:00** Diana
09:00 Encierro y vacas
11:30 Espuma en la plaza
13:00 Trikipoteo y juegos
13:00 Incansables Txaranga
14:30 Comida de l@s jóvenes
- Después** foto grupal, bingo musical y degustación de mojito
- 18:30** DISTOPIA Elektrotxaranga desde el centro hasta el Gaztetxe
20:00 Repartición de caramelos
- Después** Incansables Txaranga y cabezudos
- 22:00** Toro de fuego
00:00 ZETAK
- Después** Incansables Txaranga hasta Ateka
01:30 DJ LORO en la txozna de abajo
02:00 DJ REIMY en Atekabeltz

15 de Agosto, martes

- 08:00** Diana
09:00 Encierro y vacas
12:00-14:00 Tobogan de agua en Errekaldenea
12:00 Deporte Rural en la plaza
13:00 Incansables Txaranga
14:30 Comida de l@s soci@s del Aurrera
- 16:00-19:00** Tobogan de agua en Errekaldenea
18:00 Encierro y vacas
19:00 Ingurutxo
- Después** se repartiran caramelos y a continuación Incansables Txaranga y cabezudos
- 22:00** Toro de fuego
23:00 JOSELU ANAIK
- Después** POBRE DE MI con Incansables Txaranga Incansables

OHARRAK

- 1 UDALAK ez du ZEZENETAN gerta daitezkeen istripuen erantzunkizunik hartzen.
- 2 EGITARAUA borondatearen truke banatzen da. UDALEAN eta LIBURU-DENDETAN salgai ere jartzen da reparto eguna eta gero.
- 3 ZEZENETAN dabiltzeneri eskapabidea errexagoa egiteko, barreren gainean inor ez esertzea eskatzen da.
- 4 16 urtez azpikoek debekatua dute zezenetan ateratzea.
- 5 Arratsaldeko zezenen saioaren ondoren eta musika taldeak bere lana behar bezala egin dezan, oholtza libre utzi.
- 6 Antolatzaileak ez du bere gain hartuko zezen suzkoan gerta litezkeen erredura edo bestelakoen erantzunkizuna.
- 7 PAELLA prestatze eta jatea:
 - Ez da leihaketarik izango.
 - Bakoitzak bere SUA eta prestatzeko OSAGAIK eraman beharko ditu.
 - Bertan bazkaltzeko aukera izanen denez, urtero bezela mahai eta aulkiak bertan izanen dira erabilgarri.
- 8 Egitarauetako ekitaldi guztiak ez ditu Udalak bere gain hartzen. Hauek jende askoren borondatezko lanari esker lortu dira.
- 9 Antolatzaileak ez du bere gain hartuko umeentzako aparrak sor litzakeen alergien erantzukizuna..

PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEN OHARRAK

- Plazaola Aldizkariaren antolatzaileak (Aurrera Kirol Elkartea) ez du zertan ados egon behar bertan argitaratzen diren idatzietako iritziekin.
- Lanak bidaltzen dituztenek beren izena jakinarazi behar diete aldizkariaren antolatzaileari, sor litezkeen legezko arazoaren erantzukizuna idazkien egileena izanen da.
- ***Gure eskerrik zintzoenak aldizkari hau osatzeko beren lanekin lagundu duten idazle/eragile guztieri, azalaren leihaketan parte hartu dutenei eta baita ere argazkiak utzi dizkiguten Luze, Soro, Pablo Feo, Karmele Agirre, Mikel Illarregi eta Leire Karrerari. Bejondeizuela denei!***



"LEITZEKO PESTAK" **UXUE AGIRRE CABALLERO**-ren lana izan da
16 urtetik beherakoen artean irabazlea
ZORIONAK



“DENON PESTAK!”
 LIHER ARIZTIMUÑO ZUBELDIA



“126 ORDUAK DISFRUTATZERA”
 LIHER ARIZTIMUÑO ZUBELDIA



“PESTETAKO GOGOETAK”
 NAIARA JUANIKOREN MARIEZKURRENA

Kaixo leitzar,

2023ko San Tiburtzio pestak gainean ditugu, jai giroan eta lagun artean ongi ospatzeko tenore ezin hobea izaten dena.

Badira hilabete batzuk Aurrera K.E.-ko zuzendaritza berritu zela eta geroztik pozik eta gogotsu ari gara lanean. Jendearekin biltzeko garaia iritsita eta zuzendaritza bezala elkarteko dinamiken berri izateko, aurreneko hilabeteotan aurrerako komisio desberdinekin jarri gara harremanetan. Txirrindulariak, dantza taldea, pilota eskola, futbol taldea, etxeko komisioa, BTT bizikleta martxa, mendi taldea eta krosa, besteak beste, Aurreraren hezurdura eta arima dira, bere denbora eta konpromisoa eskaintzen dituzten pertsonen osatuta. Orrialde hau txiki gelditzen da egiten duten lan guztia aipatzeko eta horrek berak herriko bizitzari eta herritarrei zer nolako zerbitzua eskaintzen dioten. Doakie urtean zehar lanean diharduten bazkide guztiei gure aipamena eta aitortza.

Komisioen lanaz harago, Aurrera K.E.-k jada 400 bazkideen langan dabilela eta horrek berak ere elkartea martxan jarraitzeko ekarpen azpimarragarria da. Aurrera K.E.-ren etorkizuna bermatzeko herritarren bazkidetzea garrantzitsua da, ez bakarrik kuota bat ordaintzearen, baizik eta kirol elkarteak historian izan duen elkargune izpiritua mantentzea esentziala delako. Elkargunea kultura eta kirolerako, baina baita belaunaldi ezberdinentzako elkargunea edota lagun artekoa. Aurrera K.E. -ek duen izaera bazkideek ematen diote eta horrela jarraitzeko deman jarraitu behar dugu.

Ekarpenez ari garela, ezin ahaztu Leitzako udalarekin dugun hitzarmena, herriko tabernari, komertzio eta enpresa. Baina badugu guk ere elkarte bezala konpromisoa, eta ezin ahaztu aipatzeaz aurren ere "Bai euskarari" aldeko ziurtagiria berritu dugula. Ezinbestean kulturagintzaz eta kirolaz ari garenean euskararen elkarguneaz eta sustatzeko guneaz ere ari gara. Egunerokotasunean euskaraz bizi eta Aurrera K.E. parte hartzen duen tokietan euskara lau haizetara barreiatzea gure sortze-ideietan dagoen fundamentua da.

Eta sortze-ideiez eta fundamentuez ari garela, aurtengoa urte berezia dela onartzen dugu. Ezin dugu aipatu gabe utzi urte luzez auzolanean, herrigintzan, herritarrekin eta herriarentzat lanean Aurrera K.E.-ko zuzendaritzan lanean aritu den Karlos Agirre. Elkartearen dinamika zuzen eraman duen gizona, elkartearen arima momentu zailenetan ez itzaltzeko lanean jardun zuena, hamarkada askoan buru-belarri aritutakoa, aurtengo txupinazoa botako du pesta batzordeak martxan jarritako prozesuan herritarrek horrela erabakita. Hemendik Karlos Agirrerri egindako lan guztiagatik gure eskerrik beroena helarazi nahi diogu eta noski, goza dezala Leitzako herritarrek egindako lanari erakutsi dioten aitortzaz. Bejondeizula Karlos!

Amaitzeko, elkartearen aberastasun handiena pasa diren eta pasatzen diren bazkide guztiek uzten duten egitasmoetatik, ezagutzetatik, lan egiteko moduetatik dator. Eta horregatik, ezin ahaztu aurren pestetan gurekin egonen ez diren horiek guztiak. Euren memoria gure bidea argitzen duten izarrak dira.

Besterik gabe, Aurrera Kirol Elkartearen izenean pesta itzelak igaro eta gora San Tiburtzio!



AURRERA KIROL ELKARTEA

Comète sarea eta askatasunaren bidea

Bruselako Andrée de Jongh gazteak Belgikan bertan sortu zuen, 1941. urtean —bigarren mundu-gerraren baitan—, “Comète” izeneko sare antolatua. Sare hura hainbat izakera eta ideologiatako pertsonen osatu zuten.

Haren egitekoa zera zen: alemaniarrek Belgikan, Holandan edo Frantzian eraitzitako hegazkin-pilotu britainiar eta estatubatuarrek jaso eta babestea, eta gero Britainia Handira eramatea.

Zazpiehun pilotu eta iheslari baino gehiago ebakutu zituzten, Paris eta Baionatik barrena. 1.700 pertso-

tik 300 metro eskasera. Xanek bi lanbide zituen: baserria gobernatzea eta mugaz alde batetik bestera paketeak, animaliak eta pertsonak pasatzea. Comète sareko arduradunek haien lan egiteko aukera eskaini zioten —hegazkin-pilotuak pasatzeko eginkizunetan alegia—, eta lan horrek ekar diezazkiokeen arriskuen jakitun izan arren, onartu egin zuen.

Pilotuak bizikletaz iristen ziren Angelutik Larresoroko Mandotxinekoborda baserrira. Han Ezpeletako Aguerre anaiek jasotzen zituzten, eta sei-zazpi orduko ibilaldi baten ondoren, Jauregikobordara iristen ziren. Bertan Xan Mihura eta bere emazte Matiesa



Jauregikoborda. Argazkia: Xan Mihura, 1961.

na inguruk lan egin zuten sarerako, eta horietatik 160 afusilatuta edo kontzentrazio-esparruetara deportatuta hil ziren. Euskaldunak ere baziren, Alejandro Elizalde baztandarra kasu.

Comète sarea Pirinioetara iritsi zenean, oso zaindua eta gurutzatzen zaila zen muga bat topatu zuen. Orduan, kontrabandisten eta mugalarien laguntza eskatu zuten, ikusiak izan gabe muga igarotzera ohitutako pertsonak baitziren.

Mugalari horietako bat Xan Mihura baztandarra izan zen, Jauregikoborda baserrian bizi zena, muga-



Mascotena bizi ziren, sei seme-alabekin. Normalean lau pilotu izaten ziren aldiro, eta bertan bazkaldu eta lo egiten zuten.

Mugatik hurbil, Jauregikobordatik kilometro eskasera, Eztebenborda zegoen, leku arriskutsua oso, bertan bizi baitziren “Gerbergsjäger” izenekoak, hau da, mendiko ehiztari alemaniarrek.

Biharamunean, Xan Mihura Erratzu edo Amaiur aldera ateratzen zen pilotuekin, eta bost eta zazpi orduko ibilaldi baten ondoren, Mortalenbordara edo Kanttorrennekobordara iristen ziren. Gero pilotu haien Bilboko kontsulatu britainiarera jo beharko



Comèteko mugalarien omenezko monolitoa. Mihuratarrak, agintariak, Comèteko partaideak eta hegazkin-pilotuen ondorengoak.

zuten. Bilbotik Gibraltarrera, ondoren Londresa joateko. Zenbait kasutan, hiru hilabete igarotzen ziren hegazkinean erori zirenetik etxera itzuli arte.

Garai hartan isiltasuna gailentzen zen eta gertakari haiek isil-isilik igaro ziren. Gizon eta emakume haiek (sareko partaideen erdia baino gehiago emakumeak ziren) armarik erabili gabe aurre egin zioten munduko ejerzitorik indartsuenetako bati; zuhurtasuna eta engainua ziren haien armak. Jean-François Nothomb Comèteko zuzendariordeak zioenez, kontrabandisten herri honekin harremanetan sartu diren guztiek berau maite eta miretsi baino ezin dute egin.

Geroago, 1970ean, Ignacio eta Justo, Xan Mihuraren semeak –gerran zehar 16 eta 10 urte inguru zirenak– Leitzan bizitzera eta lan egitera etorri ziren beren familiarekin, eta gaur egun Justo oraindik kalean paseatzen ikus dezakegu.

Gaur egun, “Les amis du réseau Comète” nazioarteko elkarteak eta Baztan-Bidasoako Comète elkarteak oroimen historikoaren berreskurapenaren eta

zabalpenaren alde lan egiten dute. Bi elkarteak Comète sareko partaide haien senideek eta lagunek osatuta daude batez ere. Honela, mugalariak ezinbesteko askatasunerantz erabili zituzten bideak gogoratzen ditugu. Elkartearen helburua zera da: Comèteko sareko kide ausart haiek merezi duten moduan oroitzea eta haien ondarea hurrengo belaunaldiei helaraztea.

Urtero, iraileko bigarren astean, jardunaldi batzuk egiten dira, Comète sarearekin iheslari edo laguntzailer izandako guztien oroimenez, eta haiek urratu zituzten bide berak berreskuratu eta erabiltzen ditugu.

(Informazio gehiago: Camino a la libertad, Juan Carlos Jiménez de Aberasturi.)

JUAN BIDAL MIHURA AZPILICUETA



“PESTAKO GOGOZ” komikia

Naiara Juanikorena
Mariezkurrena

Genozidioa Donbassen

INFORMAZIA LORTZEKO ZAILTASUNAK

Errusiak “operazio militar berezia” 2022-02-24an abian jarri zuenean kalitatezko informazioa nahi zuena galduta ibili zen hura bilatzen. Hemengo komunikabideek Ukrainaren ikuspuntutik soilik ematen zuten informazioa. Hori gutxi balitz, debekatu egin zuten Rusia Today eta gainerako komunikabide errusiarren difusioa. Gauzak honela, Europar Batasuneko agintariek baimentzen zituzten albisteak bakarrik eskura zitezkeen. Ondorioz, Ukrainako ekialdea jasaten ari den genozidioari buruzko informazioa ezkutan geratu zitzaigun.

Garai batean Euskal Herriko komunikabideek jarra positiboagoa izaten zuten halako tragedien inguruan, baina honetan zoritxarrez nekez aurkituko dugu desberdintasunik Estatuko gainerakoekin alderatuta. Sare sozialetan murgiltzea beste aukerarik ez zitzaigun geratu; jende asko Telegram izeneko sareaz baliatu da geroztik informazio fidagarria jasotzeko. Halaber, Miguel Ruiz Calvoren Youtubeko kanala eta Negocios TV (negocios.com) ere oso aukera interesgarriak dira.

ISILEAN GORDETAKO GENOZIDIOA DONBASSEN

Informazio freskoa jasotzen hasi orduko gauza batek ematen zuen arreta: Ukrainako Gobernuak Ukraina bertakoa den Donbass eskualdea (bere baitan Luhansk eta Donetsk hartzen dituena) egunero ari dela bonbardatzen, maiz hildako zibilak eraginez. Ospitaleak, eskolak edota elizak ez dira libratzen. Ezta herritarrez betetako azokak, lanera doazen edo lanetik heldu diren langileak garraiatzen dituzten autobusak, taxiak, gainerako autoak edota kalean pasean dabiltzan oinezkoak ere. Aukeratu duten helburura misilak zuzen-zuzen irits daitezten NATOko aditu militarren laguntza jasotzen dutela esan beharra da ere. Baina, nola demontre liteke Gobernu batek bere herritarrak bonbardatzea?

AMERIKAKO ESTATU BATUEN PLANGINTZA

Sobiet Batasuna desegin zenetik AEBen helburua izan da Errusiar Federazioa sakabanatzea, SESB puzzle baten piezak sakabanatzen diren moduan desegin baitzen. Helburura gerturatzeko, NATO urte hauetan Sobiet Batasunetik atera ziren herrialde guztietan

joan da base militarrek kokatzen, nahiz II. Mundu Gerra amaitzean hori ez zutela eginen sinatu. Zertarako, noizbait Errusiari erasotzeko ez bada?

2013an, eraso horretarako Ukrainan baldintza egoiak bazirela hausnartuta, AEBek aurrerapauso bat eman zuten “euromaidan” bezala ezagutu zen errebolta diseinatu, finantzatu eta aktibatuz. Oinarria ordurako oso indartuta zeuden talde naziak izan ziren. Beren ekintza sonatuena 2014an Odesako sindikatuen etxeari su ematea izan zen, barruan beren bortizkeriatik ihesi joan zen ukrainar “errusiazale” asko barruan zela. Atera zirenei tiroz eta kolpez ekin zieten. Dozenaka lagun hil zuten, horietako asko etxe barruan kiskalita. Legezko presidentea Yanukovich boteretik kendu zuten, Poroshenko ipini eta honek errusiarri ofizialtasuna ezabatzea erabaki zuen, besteak beste. Orduantxe piztu zen gaur arte ezin bortitzago iraun duen sua. Ukrainar “errusiazaleek” protestak antolatu zituzten. Lehen unean Krimean izan ziren bizienak eta Krimeako biztanleek erreferenduma prestatu, independentzia aldarrikatu eta Errusiarekin bat egitea erabaki zuten. 2014ko martxoa zen.



Ukrainako armadak Luhansken 2014-06-18an egindako bonbardaketaren ondorioz hildako zibilak

Urte bereko maiatzean, aurrez Krimeak egin zuen bezala erreferendumak antolatu ondoren, Luhansk eta Donetskoko eskualdeek ere errepublikak aldarrikatu eta Errusiarekin bat egiteko erabakia hartu zuten.

NAZISMOA UKRAINAN

Mugimendu hauek gertatu bezain azkar hasi ziren egun oraindik amaitu ez diren bonbardaketak gauzatzeko. Poroshenkok abian jarri zuen genozidio politikari Zelenski hurrengo presidentek jarraipena eman zion eta honela iritsi gara gaurko egunera. 2013tik hona Ukraina era guztietako ezaugarri naziz hornitu da, Hitlerren kolaboratzailea izan zen Stepan Bandera nazia lider nagusitzat dutelarik. Banderetan, tankeetan, autoetan, bularrean nahiz bizkarrean edota besotan, nonahi aurkituko dituzu ezaugarri naziak. Harro erakusten dituzte.

Baina nazismoa ez da fenomeno berria Ukrainan. Adibide gisa, 1943an Ukrainako Volinia eskualdean, ukrainarrek 35.000-60.000 poloniar hil zuten. Ukrainako beste inguruetan hil zituztenak gehituta 150.000tik gora kalkulatzen dute, etnia desberdinekoak izate hutsagatik, ukrainar naziak hil zituztenak.

Baina zergatik zibilak egunero hil behar hau gaur egun? Batzuek esanen dizute Gobernuaren mendekua dela, "errusiazale" hauek Gobernuari bizkarra eman diotelako. Beste batzuek, herritarrei ezartzen zaien zigorra dela errusieraz mintzatzeagatik eta kultura errusiarra maite dutelako. Beste hainbatek, Errusiarekin harremanak estutu nahi dituztelako. Agian, besterik gabe, errusiar sentitzen direlako. Arrazoi horiek guztiek balio dezakete, azken batez Gobernuak han egiten ari dena genozidioa delako. Informazio batzuen arabera, 2014tik 2022ra bitartean, gutxienez hiru mila zibil hil zituen armada ukrainarrak. Nekez jakinen dugu orain zenbat hildako gehiago izan den azken urte luze honetan. Baina badakigu, ongi jakin ere, lehen maiz izaten ziren bonbardaketak orain eguneroko zerbait bihurtu direla eta hildako zibilen zerrenda luzatuz doala, amaierarik ikusten ez zaion soka luzea osatuz.

ZELENSKIREN POLITIKA

Europar Batasunak hasiera-hasieratik, 2014tik aletia, Zelenskiren politika babesteko erabakia hartu zuen eta horretan segitzen du gaur ere. Inoiz armada batek bere esku eduki ez dituen obus, blindatu, tanke, hegazkin, aholkulari, aditu, ikastaro eta gainerako arma kopurua ematen ari gatzazkio etengabe Zelenski asezinari Europar Batasunetik. Eta gainerako gastuetarako, hemengo herritarren bizimodua hobetzeko beharrezkoak diren ehunka mila euro ere. Bitartean, ze politika ari da egiten presidente hau hain laguntza erraldoiren truke? Lehenik, aipatua dugun Donbassko genozidioa azpimarratu beharko dugu berriz ere. Genozidioa delako Gobernuak Ukrainaren ekialdea gupidarik gabe behin eta berriz bonbardatzea, bertako herritarren heriotza nahita bila-



Stepan Bandera ukrainarraren erakundeak (OUN) 100.000 poloniar eta judu hil zuen II. Mundu Gerran. Argazkian, Ukrainako hobi komun bat.

tuz. Gorrotoak eraginda, ukrainarrak ez balira bezala hartzen ditu Gobernuak Donbassko ukrainarrak.

Bere politikaren bigarren oinak kultura du helburu. Kultura errusiarren arrasto guztiak ezabatzeko asmoz, orain eskolan eta unibertsitatean ezin da errusieraz ikasi, liburu dendetan errusieraz idatzitako liburuak ezin dira saldu eta liburutegietatik hizkuntza horretaz idatzitako liburuak erretiratu egin dituzte. Hortaz gain, ehunka urtez errotuta egon den erlijio ortodoxo errusiarren elizak erretzen eta suntsitzen eta apaizak eta monjak atxilotzen ari direla ere azpimarratzekoa da. Hau da, errusiar kultura eta usarioekin lotura duen oro ezabatzeari ekin dio, indarrez eta bortxaz. Misilen lanaren neurri osagarriak. Genozidioaren ifrentzua.

Errusiar sentimenduekin bat egiten duten komunikabide, alderdi politiko eta sindikatuak aspaldi itxi edota legez kanpo utzi eta militante ugari gartzelaratu zituela gogoan izanik.

EUROPAR BATASUNAREN INPLIKAZIOA

Europar Batasunak badaki Zelenskiren Gobernuaren eguneroko zibilak hiltzen ari dela eta Ukrainan nazismoa indartzen. Badaki Errusiaren ekonomia kaltetzeko hartu dituzten zigorrak Errusiari ez baina Europako mendebaldeko herritarrei egiten digutela kalte, janaria eta energia garestituz, enpresak ixtera edo kanpora joatera behartuz, langabezia handituz, e.a. Alemaniak -EBren motorra- atzeraldi ekonomikoan erori dela aitortu berri du. Europar Batasunean inflazioak gora egin du. Eta, kuriosoena, Errusia inoiz baino petrolio eta gas gehiago saltzen ari da mundu osoan barna eta bere ekonomia bizkortzen ari da.

Hortaz gain, egun hauetan EB osoan zergak igo behar dizkigutela esan berri digute eta hezkuntzarako eta osasungintzarako dirua murriztu egin behar dutela, Zelenskiren Gobernuari milaka milioi euro gehiago bidali behar zaiolako. Gure agintari politikoek Europako mendebaldeko Amerikako Estatu Batuen morroi bihurtu dute, EBko ekonomia etorkizunik gabe uzten ari dira eta familiak gero eta behartsuago. Nord Stream gas hodien leherketak Europar Batasunaren autonomia politikoa indartzeko ez du balio izan eta itxaropenerako ateak itxita geratzen ari zaizkigu.

MINSKEKO HITZARMENARI BOIKOTA

Gertatzen ari diren milaka hildakoak ekidin izan zitezkeen Bielorrusiako Minsk hirian sinatu zen hitzarmena errespetatua izan balitz. 2015ean adostu zen, sinatzaileak Errusia, Ukraina, Europako mendebaldeko eta Luhansk eta Donetskoko Errepubliketako ordezkariak izan zirelarik. Akordioaren puntu garrantzitsuenak hauek izan ziren:

- Bi aldeek berehala su-etena iragarriko zuten.
- Europako mendebaldeko bi aldeek hitzarmena errespetatuko zutela bermatuko zuten.
- Ukrainako Gobernuak Luhansk eta Donetskiko estatus juridiko-politiko berezia onartuko zien.
- Lekuko hauteskundeak antolatuko ziren, aipatu bi Errepubliketan tokiko Gobernuak osa zitzaten.
- Donbasserako programa berezi bat aktibatuko zen, ingurua berreraiki eta ekonomikoki susperetzeko.

Hitzarmena bete eta errespetatu zuten bakarrak Luhansk, Donetsk eta Errusia izan ziren. Prozesuan aktiboki parte hartu zuen Alemaniako burua Angela Merkelek 2022ko abenduan mundu osora hedatu zuen Minskeko prozesua Ukrainako armada indartzeko taktika besterik ez zela izan eta sinatutakoa inoiz ez zutela betetzeko asmorik izan. Egun batzuk beranduago, Boris Johnson Britainia Handiko lehen ministroa eta François Hollande Frantziako presidentek mezu bera errepikatu zuten. Ondorioz, NATOk zortzi urteko tartearen zuzenaren Ukrainako armadari era guztietako armamentu modernoa emateko eta erabiltzen erakusteko, Europako mendebaldeko armada indartsuena osatuz. Beste modu batera esanda, NATO-EEBB-EB hirukoak ziria sartu zien Errusia, Luhansk eta Donetsk.

Azken saiakera 2022ko udan egin zen, Turkian, Erdogan presidentek Ukraina eta Errusiako ordezkariak agiri bat sinatzea lortu zuelarik. Boris Johnsonek Kievera egin zuen bidaiaren batekin batera gelditu zen prozesua.

MUNDU MULTIPOLARRA ABIAN

Lehen aipatu dugu EEBB eta NATOren aspaldiko helburua dela Errusiar Federazioa sakabanatzea, 1991ean Sobiet Batasuna hautsi zen modu berean. Ondoren, Txinaren txanda etorriko litzateke. Bere biziraupena arriskutan zela ikusita, Errusiak bi erabaki hartu zuen 2022an: Minskeko prozesu faltsuari amaiera eman "operazio militar berezia" aktibatuz eta Txinarekin eta mundu osoko herrialde askorekin hitzarmen berriak sinatu, mundu multipolarrari bide berriak zabalduz.

Hitzarmen hauen helburua Amerikako EEBBei planeta osoan bere arauak inposatzeko bidea oztopatzea da -Afganistan, Irak, Siria, Libia, Yemen, Jugoslavia, Panama, Nikaragua ... bezalakoak errepika ez daitezkeen- eta herrialdeen arteko harremanak, mehatxuetan eta zigorretan oinarritu beharrean, alde guztientzat onuragarriak izan diren hitzarmen ekonomikoak eginez eraikitzea. Dagoeneko lehen urratsa emana da: BRICS (Brasil-Errusia-India-Txina-Hegoafrika) sortu dute, desdolarizazioa arma nagusitzat dutelarik. Gaur egun dagoeneko 29 herrialdek eskaera bideratua dute elkargo horretako partaide izateko eta beste hainbat eskaera prestatzen ari dira. Mundu multipolarra abian da. Aldaketa handiak heldu dira eta ... Europa beste aldera begira.

Aulkien jolasa

Ba al dakizu Aulkien Jolasak asko duela
Neurohezkuntzatik?

Hezkuntzan dihardugun andereño, maisu eta irakasleok gure ikasleak tokiz aldatzeko ohitura errotua dugu. Gehienetan, toki aldaketa, ikasleen arteko harremanak sendotzeko helburuarekin egin ohi dugu eta zenbaitetan, momentu horretan bere jarrera orekatzeko helduaren eskuhartzea behar duen ikasle hori bere onera ekartzeko helburuarekin.

Neurohezkuntza garuna, emozioak eta hezkuntza barne hartzen dituen disziplina da.

Gizakiok berezkoak ditugu zenbait portaera; esate baterako, edozein dela ere parte hartuko dugun ekitaldi edo saioa, geure burua eroso aurkituko dugun eserleku batean eseriko gara; ez dugu soilik erosotasun fisikoa bilatuko, baita emozionala ere. Eta altxatzen bagara, berriz ere itzuliko gara hasieran hartu dugun eserlekura. Hortara, gure energia eta arreta ekitaldi, ospakizun edo dena delakora egonen da zuzendua eta ez hainbeste testuinguruan eroso sentitzera hori, jadanik, eserlekuak ematen bait digu.

Eman dezagun, kultur astean antolatutako hitzaldi batean zaudela. Irudika ezazu Herri Aretoan eserita zauden tokia, hartu duzun eserlekua. Eta orain, galde egin iezaiozu zeure buruari, zergaitik eseri zaren eseri zaren tokian.

Arrazoiak askotarikoak izanen dira. Izan liteke, irteeratik gertu zaudelako, edo bazterrean eserita bazaude, mugitzea errezago izanen zaizulako. Aurrean eseri bazara, hizlaria ongi entzun eta ikusi nahi duzulako eta atzean eseri bazara berriz, oharkabean pasa nahi duzulako.

Toki horretan esertzearen beste arrazoi bat izan liteke aldamenean eserita duzun laguna ezagutzen duzulako. Hartara, saioa arreta handiagoz jarraituko duzu; lasai eta eroso egonen bait zara.

Eta orduan, zergatik aldatzen ditugu ikasleak tokiz? edo zergatik ematen diegu aukera beraiek nahi duten tokian eser daitezen?

Edozein dela ere hartzen dugun aukera,

★ Denbora eskaini behar diegu beti ikasleei egoera berrira egoki daitezen. Tokiz aldatze hutsak, ahalegi-na eskatzen baitie egoera berrira egokitu arte.

★ Toki aldaketa beti azalpen batez lagundua izanen da. Zergatik eta zertarako aldatu ditugun tokiz.

★ Ikasleei zeregin nagusia eman baino lehen, jolas moduko ariketa arinago bat proposatuko diegu; lehendabizi, aldamenean duten lagun berriarekin jardun behar baitute, elkar ezagutu, hitz - aspertu bat egin. Ondoren, zeregin nagusiari arrakastaz heltzeko.

Zergatik ote da ba orduan hain zirrargarria aulkien jolasa?

Aulkirik gabe gelditu nahi ez dugun horretan, gure gorputza alerta egoeran sartzen da eta ondorioz, bi hormona ixurtzen ditu garunak: **adrenalina** (zerbait egitera bultzatzen gaituena) eta **kortisola** (pentsatzeko tarterik ere uzten ez diguna). Eta musika hotsa gelditzen denean, gehiegi pentsatu gabe, joaten gara lasterka libre dagoen eserlekuaren bila.

Politte, ez da hala?

JORE



Pozoina, dosiak egiten du



Pasmo belarra **Lysimachia arvensis**

Gozatu ederra hartu giñenen orduko hartan, Garbiñeren hitz jarioarekin.

Sorionekuak gu!

Kultur Astearen baitan, Garbiñe Larrea Iturralde (@Gar2Larrea) aurrez aurre entzuteko eta ezagutzeko aukera izan giñenen.

Landareen sentiberatasunak liluraturik, berak esandakoen artean bat aukeratu diñat hiri aurkezteko irakurle. Berak adierazi bezelaxe jasotzen saiatu nan. Balitteken, hala re, adierazpen batzuk osatugabeak izatea eta, tajuz eta txukun, nire ekarpenez borobildu nahi izan dizkiñat.

“Sendabelarrek dakitena” jakintza eremu zabala don zorionez ugaztunon mesederako.

Baina alboondorioak ere badizkin eta beraz, kontuz eta arduraz ibiliko gaitun, kaltegarria suerta ez zekiguken.

Etxean, atteri askotan ikusi izan zionat arrain hezurrek gaiztotutako zauria zuen behatza landare honen uretan sartu eta zornea kanporatzen.

Tolosa eta Ataun artean, animalientzat erabilia, gaindosiak duen arriskuagatik seguruenik. Animalia galtzea hobea izanen baita noski, gizakia galtzea baino.

Baina gu, gizakiok ere, ugaztunak gara eta egoki erabiliz gero, ez dugu noski galbiderik izanen.

Lore gorria duena Lysimachia arvensis da eta lore urdina duena berriz, Lysimachia foemina. Azken honek baino askoz ere propoitate gehiago ditu lehen-dabizikoak, lore gorria duenak, alegia.

Legez kanpoko landarea da. Espainiar estatuan, lege agindu batek bere salmenta galarazi zuen, toxikoa dela argudiatuz.

Pakistanen, hospital barruti batean aztertu dute eta antiinflamatorio gisa erabiltzen.

Berdetan, alkaloidetan aberatsa da. Lehortzean, alkaloideak joan egiten zaizkio, gutxitu. Osagai hau da beste batzuen artean, toxizitatea ematen diona, baina

Pozoina, dosiak egiten du.

Landareak loreaz eta hostoaz gain, hazia ere badu. Bolatxo moduko bat da eta landarea erabili aurretik hazia kendu eginen diogu beti. Edo bestela, hazia sortu baino lehen bilduko dugu landarea. Udaberrian landarea hazirik gabe egon ohi da.

Zer egiten du?

Pasmaoa, infekzioa eta honek sortutako zornea kentzeko da erabilia. Sistema linfatikoan zabaltzen da. Antibiotiko agente haundi bat da. Ekintza eremu zabala du, ordea.

Zitotoxikoa da; hau da, zelulentzat da toxikoa.

Agente kimioterapeutikoa ere bada; kimioterapia efektua egiten du. Prebentibo bezela erabil daiteke, baina sekula ere ez kimioterapiaren orde.

Buruko likido zefalorakidea garbitzen du. Zornea edo patogenoa baldin badago, erasotuko du.

Hospitalean dauden bakterio haundiak oso ongi erradikatzen ditu. Hospitalera bisitan joanez gero, kutsurik ez hartzeko, infusioan hartuko dugu.

Ukendua egin daiteke soilik belar honekin.

Eztarriko mina zaintzeko, eztarria ukenduaz igurtziko dugu.

Izenaren bukaeran “-tis” duten gaixotasun guztiak zaintzeko agente haundi bat da.

Infusioa

Pertsonaren odol bolumenaren arabera, 200 ml ur (50 Kg ko pertsona bada) eta 300 ml ur (100 Kg ko pertsona bada).

200 ml ura irakin eta sua itzaliko dugu. Kutxarila bat landare lehor (lorea eta hostoa, hazia kenduta) edalontzian jarri eta ura gehituko diogu. Eta tapaz estaliko.

Landare askok lurrunean dituzte printzipio aktiboa. Horregatik, lorea ez dugu irakingo, ezta hostoa ere. Eta landareari ura gehitu ondoren, tapaz estaliko dugu.

3 egunetan segidan hartuko duzu; ez badizu on egi ten azkarregia delako zuretzat, txandatur hartuko duzu 6 egunetan zehar.

Erretzailea bazara, amiantoarekin lan egin baduzu edo eta karga tumoral handia baldin baduzu, urte osoan zehar har zenezake hilabetero, 3 egunetan segidan.

Gauean, lotarakoan, hartuko duzu.

Hospitalean izan berri bazara, senitarteko eta lagun baten bisitan, kutsua sahiesteko, dosi txikian hartuko duzu:

1 gramo landare, 50 ml ur irakin, sua itzali eta ura landareari gehituko diozu. Landarea hazirik gabe, noski. Infusioa tapaz estaliko duzu.

Landarea itzaletan **lehortuko** dugu; eta ez eguzkitan. Zabal-zabal jarriko dugu paper txuri edo maindire baten gainean. Egunkaririk ez dugu erabiliko, tinta ematen bait dio landareari. Kartoia ere, oso egokia da lehortzeko.

Euskal Herrian, lehortzeko gutxienez astebete beharko dugu, eta Leitzan, 3 aste bai! Belarria fin jarri eta landareak kraz-kraz egiten badu, lehortu den seinale.

Bota berriak erosi dituzula, jaso kaxak; landareak lehortzeko aproposak dira eta.

Landarea zabal-zabal jarri kaxetan eta kaxak kotxe-ko maleteroan sartuko ditugu.

Kotxea atarian baldin badago, ederki lehortzen dira maleteroan. Toki iluna baita eta batere ezgukirik bada behintzat, tenperatura handia hartzen duena.

JOBÍÑE



MIÑA

edo miñe; hilekoan miñe

Hilekoak emakumeengan eragiten din miñe ez don bakarrik fisikoa, emozionala ere badon. Garbiñe Larrea Iturralde, @Gar2Larrea, Leitzartzeko saikeran, eta Kultur Astearen baitan herrira etorri den bi aldietan, hari jasotakoetatik bat papereratu nahi izan diñat; hilekoak eragindako miñerako ukendue, haiz zuzen ere. Neskato, neskaxa, andre, andere edota andereño lagungarri izan dakinan. Minarentzat, bai min fisiko nola emozionalarentzat ere, infusioa hartzea ere bazeon, baina ez gaitun infusioaren formularen sartuko, luze joanen litzaiguken eta. Ukendua egiteko jarraibideak baditton ere irakurgai honen muina, hilekoaren minaren inguruko zenbait gogoeta ditton irakurle lehendabizi.

HILEKOAREN MINAK

Mina nola kendu?

Analgesia egiteko aukera asko ez dauzkagu landareekin. Dauzkagun aukerek, landarea hartuta, utziko gaituzte "kao". Orduan, mina kenduko digute bai, baina gaitasuna ere bai.

Eta ez badago min fisikorik? Askok eta askok min emozionala izaten dugu eta min emozional hori jatorri askotarikoa izan badaiteke ere, - izan dugun bizitza sexuala, bizitzan zehar izan ditugun zauriak - hilekoz-hileko, min emozionala jasan dugunean, ikusi da perimenopausian - urte oso bat hilekorik izan gabe arteko tarteari esaten zaio - eta menopausian krisi handiagoak ditugula. Estrogenoa joaten baita eta litekeena da burmuinari eragitea. Eta nola eragiten dio? Antsietatearekin, insomnioarekin eta depresioarekin. Hirurak dira menopausiaren ezaugarri. Askotan zeuk, emakume horrek, ez duzu hilekoan minik izan, baina bai negargurea eta estualdia edo larritasuna, hipersentibera zaudelako.

HILEKOAK SORTUTAKO MINARENTZAT UKENDUA

Ukenduan tradizioa Euskal Herrian oso zabala da; 7 belar ukendua egiten da, pasmo belar ukendua, milagritos, ukendu horia. Egin daiteke zirkulaziorako ukendu bat, erromeroarekin. Izpilikuaren ukendua ere oso ederra da azalarentzat. Ukendua sekulako herraminta da azalarentzat eta zirkulazioarentzat baina baita barruko organoentzat ere.

Osagaiak:

230 ml ko ontziarentzat edo, 115-120 ml ko bi ontzirentzat.

Berbena (Verbena officinalis) landare loratu gabea, hostoa eta txortena : 2 zopa koilarakada

Erromero (Salvia Rosmarinus) freskoa: txorten, lore, hosto: 2 zopa koilarakada

Kanela (Cinnamomum zeylanicum): zotz bat.

Iltze aromatikoa (Syzgium Aromaticum): zopako koilarakada bat.

Sesamo olio: 200 ml

Rizino olio: 40 ml

Erle argizaria, solidifikatzeko: 30 gr.

Erromeroaren eta kanelaren olio esentzia: 20 na tanta bakoitzetik

Hiperikoa (Hypericum perforatum): Santio-Belarra, San Juan Belarra: zopa koilarakada bat

Kamamila (Chamaemelum nobile): zopa koilarakada bat.





Ukendua egiteko prozedura:

Bezperan hasiko dugu prozesua.

Oliotan jarriko ditugu landareak bezperan, Maria bainuan. Landareak freskoak izanen dira. Azpiko ura irakiten hasten denean ordu erdi batez edukiko dugu sutan, tarteka eraginez.

Sua itzali eta gau osoan utziko dugu dagoen bezelaxe. EZ TAPATU! Ezta trapua ere. Ez da lurruna kondentsatu behar. Goizean hoztua egonen da. Biharamunean iragazi. Askotan zikina pasatzen da. Orduan, bigarrenez fildatuko dugu; ohial batekin. Argizaria bertan jarri eta argizaria erabat urtzen denean - beti beroa zeharka emanez, Maria bainuan - kristalezko ontzian jarriko dugu. - 115-120 ml ko bi frasko dira. Olio esentzialik berez ez du behar, baina nahi izanez gero erromero eta kanela olio esentziala jartzea bada, kristalezko ontzixora bota ondoren. Azken hauek ukendua hobeto kontserbatzen lagunduko dute eta baita ukenduaren lana indartzen ere.

Erabat hoztu eta gogortu arte bertan utzi. Tapa jarriko diogu, tapa metalikoa beti.

Tapan, etiketa jarriko dugu, urtea eta osagaiak adieraziz.

Zergatik sesamo oliotan?

Sesamo olio, olio lodixka da, mineraletan aberatsa. Sesamoak kaltzioa (Ca) du. Olio honek beroa ematen du, berogarria da, kalorifikoa, umetokiari bero lokala emateko oso aproposa da. Umetokiaren zein obarioen uzkurdurak eta horiek eragindako minak baretzen ditu. Zilborra eta pubisa artean igurtzi ukenduaz, masaje bidez. Eta gero, bero lokala jarriko diogu gainean; hazitxoak zakutxoak esate baterako. Giltzurrunetan badugu mina, atzean igurtziko dugu eta hazien zakutxoak atzean jarriko. Izterrean eta ingletan bada mina, hor ere bai.

Umetokiko minaren erreflejoak dira eta.

Hilekoa dugun egun guztietan eta baita obulazio garaian ere, ziztadak eta minak izanez gero.

Oherakoan, ukenduaz ongi igurtziko dugu minbera daukagun gorputzaldea. Mina handia bada berriz, ukenduaz ongi igurtzi aipatutako gorputzalde guztiak eta dutxa edo bainu beroa hartuko dugu. Ur beroarekin dilatatu egiten baita.

100 ml sesamo olioari 15 gr. erle argizari jarriko dizkiogu udaran eta 12 gr. neguan. Argizaria, ahal bada, bertakoa. Bertako erlezainari erositia. Xaflak ere badaude, oso praktikoak dira. Xaflak erditik eginda, xafla bat 2 ukendutarako gaia baita. Xaflak 30 gr. pisatzen du eta.

Argizaria urtekoa izanen da; argizaria usainduko dugu, usaina behar du izan. Ez badu, argizari zaharra den seinale. Eta argizari zaharrik ez dugu nahi; hura. kandelak egiteko erabiliko dugu.

Argizari freskoa, ukendua egiteko.

Argizaria, olio gogortzeko metodoa da eta azalean, poroak dilatatzeko, hiperemia lokala, olio eta sendabelarra barrura ongi sartzeko. Gainera, A bitamina du eta antioxidatzaile asko.

Glizerina, baselina, parafina dira poroak isten dituztenak, eta ez argizaria.

Errizino olio ezpainetako makilajearen erabiltzen da. Belar dendan erosten da, farmazian ere bai. Osagai bakarra duen olio erositako dugu. Tortura gisa, frankismoan erabilia izan zen, bereziki emakumeengan. Purgante bezela, kaka jarioan uzteko emakume hori, tortura humilazio eran egiteko, Saturrarango kartzelan eta baita Leitzañan ere. Olio guztietan dentsoena da. Oso olio sendoa da, pelikula bat egiten du azalean. Ukenduaren efektua luzarazten du, kapa egiten duelako.



Zein mina mota?

Organo uhekoetako minak - umetokiko mina - baina baita ere artikulazio minak, lepoko minak, uzkurdu-rak/espasmoakt - taupada moduko bat badugu golpea hartu dugun gorputz atalean - traumatismorik izan bada.

Oso arina izan daiteke ukenduaren eragina orduan, nola indartuko dugu?

Ilitze aromatikoaren olio esentziala gehituz; 15 olio tanta goiko formulari gehituko dizkiogu. Analgesia egiten du, bero lokala ematen eta irrigazioa hobetzen.

Umetokiaren inguruko irrigazioa hobetzen du. Ilitzea gehiegi bada zure larruazala sentibera delako, **Menta (Mentha aquatica)** gehituko diogu; 15 tanta, honetatik ere. Barruko bero kongestioa dagoenean, beroa kanporatzen du, aritzen du. Menta, hotzbera bazara, etzazu erabili. Udarako formula bada, mentarekin eginen dugu. Negurakoa bada, mentarik gabe.

Mentha aquatica - Menta japoniarra, euskaraz txipa belarra, erreketan ugari dugu Euskal Herrian.

Udaran egiten badugu eta **Kamamila (Chamaemelum nobile)** loretan badago, - mendira joanen gara abuztuan kamamila biltzera, eta ez Benidorm-era - landare freskoa gehituko genioke goiko formulari; 2 koilarakada haundi.

Mina oso haundia denean, pertsonak ezin duenean, jan, arnastu, botako egiten duelko, aurreko formulari **CBD olio**a gehituko diogu, minak baretu eta mintzak lasaitzen ditu eta.

TCH rik gabekoa aukeratuko dugu eta %20tik gorako cannabidiola ozatea gomendatzen dut.

100ml rentzat, 7 ml CBD olio jar daitezke gutxienez eta 10 ml. gehienez. Olio eta argizaria urtuta daudenean eta kristalezko ontzitzoetan jartzera goazenean, gehitu CBD olio.

Doinua: Iparragirre habila dela

*Erljioak esan izan du
hori da gauza "zikiña"
oinazea da emakumean
garratza eta gordiña
gure aurreko amak
ondorengo alabak
gaindi dezagun samiña
sendabelarrek goxatzen dute
gure hilekoan miña*

LEITZAN, 2023KO GARAGARRILAREN 15 EAN.
JOBIÑE

Gizonetik pertsonara

Bazen behin gizon bat, lanean, jendaratean nahiz etxean bere egiteko erak eta jokamoldeak hobetze koska nabarmena zutela sentitzen zuena. Ohartzen zen bere egungo moldeak bere gurasoekiko aldaera nabarmenak izan arren ez zutela asebetetzen.

Emakumeen bilkuretara gerturatu eta belarria jarriz ikasi zuen hainbatek beldurra, ikara sentitzen zutela gauez leku bakartiak igarotzean (berak sekula ez bezala), baita beraien inguruko gizonak etxeko hainbat lanetan aritu arren arduragabekeria zutela oraindik umeen arropa erosketan, etxeko komonzulua garbitzean edota lanaldi murrizketak eskatzean.

Orduan gizonak osatutako talde batera gerturatu zen. Bertan hasiak ziren XXI. mendeko beraien paperaz hitz egiten, emakumeen samurtasunera gerturatu nahia sentitzen, seme-alaben heziketaren parte aktiboa izateko moldeak deskribatzen. Taldean sartu eta hitzaldi, kontzentrazio, manifestazio, bilera, irakurketa, hausnarketa, tailer, ... parte hartu zuen eta bere gizontasunetik pertsona izaterako bidea egiten hasi zen. Pertsona bat gehiago, ez zakil edo ez alu, pertsona baizik.

Denbora pasa ahala, ordea, taldeak indarra galdu zuen, partehartzaileak jaisten hasi ziren. Azkenik, taldeak, talde izateari utzi zion. Batek, gogobetetasun eta autokonplazentziara iritsi zirela esan zitekeen; bestalde, talde izaeraren hasierako mamuak agertu ziren: banaketa eta isolamendua, beste gizon batzuekiko mesfidantza eta jasandako indarkeria, hau da, betiko gizonen arteko harremantzeko moduak. Horrek guztiak, beraien arteko harremanak larriki baldintzatu zituela ohartu zen.

Hasierako puntuan zegoen.

Zerbait egiteko beharra zuen.

Orain gutxienez erdi gizon eta erdi pertsona sentitzen zen.

JOSU URKIOLA OLANO



- ETXERA bidean, *salbuespen neurriak stop! -*

Kaixo, herrikide:

Ongi dakizuen bezala, ospakizun garaia izaten da udakoa; udako solstizioa, zapi eta gerriko gorriak, Leitzeko pestak, oporraldiak... Hamaika aukera gertukoekin eta ez hain hurbilekoekin egon, hainbatetan irri-farra partekatu eta zenbait ideia trukatzeko. Aldi berean, ikasturtean zehar egindakoari gainbegirada bat eman eta balorazioak egiteko garaia ere izaten da, asmatutakoak balioan jarri, ahulguneak identifikatu eta aurrera begirako erronkak azpimarratzeko. Talaia honetatik, beraz, Leitzako Sare Herritarrak hainbat ideia partekatu nahi du zurekin.

Baga: Korapilo nagusi bat askatu beharra nabarmendu izan dugu urte gehiegitan: euskal preso eta haien senide nahiz lagunek sufritu izan duten urrunketa-politikak sortutako giza eskubideen urraketa. Latzegia izan da urrunketa-politikak eragindako sufrikarioa, eta ezin aipatu gabe utzi honen alderdirik latzena; hau da, dispertsio-politikaren ondorioz 16 senidek bizia bisitetarako bidean galdu dutela. Hala ere, aurrera egitea lortu dugu! Gaur, urrunketa-politikarekin amaitzear gaudela esan dezakegu. Ia euskal preso guztiak Euskal

Herrian daude, eta duela lau urteko maparen argazkia nabarmen irauli da. Eta, hemen, korapilo hau askatzeko, gutako, zuetako bakoitzak egindako ekarpen eta bidea balioan jarri nahi ditugu. Izan ere, zoritxarrez, urte gehiegitan luzatu den auzolan erraldoi bat baitago urrunketa-politikaren aurkako lorpenean: senideen xamurtasuna eta indarra, sendagileak, psikologoak, herriz herriko dinamikak, Mirentxin gidariak, hamaika elkartasun zozketa eta abar luze bat. Eskerrik asko bihotzez!

Biga: Gertuago daude, bai; gertuago ditugu, bai, eta horrek, zalantzarik gabe, izugarritzko zama gainetik kentzea dakar. Baina inork ez dezala pentsa bide hau hemen amaitzen denik, euskal preso eskubideen urraketak jarraitzen baitu. Horren lekuko da legeri arrunta betez gero ia euskal preso guztiak uneren batean kalean egon beharko luketela: izan asteburuko baimenak lortuz, hirugarren graduaren baitan ia egunero enplegu batera kalera ateraz edota baldintzapeko askatasunean kondena etxean betez. Baina, erreallitateak erakusten digu korapilo handi bat dugula hor ere. Datu bat ematearren, 3. graduan 110 presok egon

beharko lukete, eta soilik 30 daude. Euskal presoek dagozkien eta espetxe arduradunek proposatzen dituzten gradu progresioen aurrean, progresio hauek sistematikoki blokeatzen dabilta Madrilgo fiskaltza eta auzitegiak. Beste behin ere, mendeku eta gorroto ikuspuntu batetik uler dezakegu Madrilgo judikaturaren jarrera hau; herri honetako adostasun sozial eta instituzionalaren aurka jardunez eta euskal presoek etxeratze bidea ahal bezainbeste zailtzea du helburu. Eta horrelako atzerapausuek oinarri duten salbuespen legeria amaitzean dugu hurrengo bizpahiru urteetako erronka nagusia; bai eta beste testuinguru batean PPren gobernuek indarrean jarritako 5/2003, 7/2003 eta 7/2014 salbuespen legerien desaktibazioan ere.

Higa: Sare Herritarrak behin eta berriz erakutsi du herri honetan elkarbizitza sustatu eta korapilo nagusien konponbidean oinarritutako bakeranzko bidea egitea duela iparra.

Horregatik, beste behin ere, herri honetan izan diren biktima eta sufrimendu guztiekiko begirunea adierazi nahi dugu hemen. Are gehiago, ez zaigu iruditzen haien minaren erabilera alderdikoak elkarbizitzarako baldintza sozialak hobetzen dituenik.

Laga: Eta bidea egiteko, aktibatzen jarraitzea dago-kigu, baita gure pesta eta ospakizunetan ere. Horretarako, abuztuaren 10ean, 13:00etan, Sare Herritarrak eta Leitzako hainbat eragiletako ordezkariok deitutako manifestazioan parte hartzeko gonbita luzatu nahi dizugu,

“Etxera” lemapean burutuko dena.

Boga: Boga egin dezagun, aurrera, guztiok batera, zenbat eta itsasontzi handiagoa, orduan eta urritirago iristeko aukera izango baitugu herri honetako bakearen eta elkarbizitzaren norabidean. Horra hurrengo urteetako erronka nagusia. Lortutakoak balioan jarri, denon artean elkarlanean aritzeak duen indarraz jabetu behar dugu, eta bide horretan sakontzeabesterik ez daukagu; horrela askatuko baititugu oraingo korapilo hauek ere.

Izan ditzazuela pesta zoriontsuak.

LEITZAKO SARE HERRITARRA



“La Voz de Leiza”

Leitzen bazen periodikoa. Ez zen egunkaria, hilabetekaria baizik. Sei hilabetez argitaratu zuten. 1921-ko abenduan eta 1922-ko ilbeltzean, otsailean, martxoan, apirilean eta maiatzean. Beraz sei ale bakarrik atera zituzten. Eta ale bakoitza sei orrialdekoa zen eta 10 zentimo balio zuen. Joxemari amerikanoak argitaratu zuen eta izenburuak honela dio: Fundador y editor: JOSÉ M. LIZARRAGA.

Lanerako Evaristo Bozas Urrutia periodista errentiarra kontratatu zuen. Bozas Urrutia hau 1903an Argentinara joan zen eta han sortu zuen “Diario del Pueblo” periodikoa. Gero Montevideora joan zen eta han Arnaldo Parrebererekin batera beste periodiko bat sortu zuen “Euskal Herria” izenekoa. Eta 1921ean honera itzuli zen eta orduan sortu zuten “La Voz de Leiza”. Periodiko hau itxi ondoren beste periodiko bat sortu zuten Donostian “El País Vasco” izenekoa Bozasek, Lizarragak eta Ramon Berraondok. Bozas hau ez zen geldirik egiteko ona eta berriz Argentinara itzuli zen eta han “El Diario del Pueblo” periodikoaren zuzendari jarri zen. Hango ustelkeria eta bidegabekariak gogor kritikatzin zituen eta jauntxoek ez zuten gogoko. Tiroz hil zuten, Tres Arroyosen, 1929. urtean. Liburuak ere eskribitu zituen: “Los vascos de Uruguay”, “Los vascos en la nación Argentina”, “Andanzas y mudanzas de mi pueblo”, “La tragedia del emigrante”...

PERIODIKOA

Aurreneko alea (Leiza, 4 de enero de 1921) dena erdaraz dago eta esaten du zein diren periodikoaren helburuak: *“Para remover las aguas estancadas de la villa –hablamos en sentido figurado–, para discutir a plena luz los problemas urbanos, económicos, administrativos, industriales y culturales; para combatir todo género de caciquismos; para estimular toda iniciativa inteligente y honrada; para propulsar un movimiento de armonía entre todos los hombres amantes del progreso del pueblo; para revelar a propios y extraños los grandes recursos con que cuenta la villa para resolverse con éxito un plan de transformación urbana; para realizar, en*

suma, una campaña patriótica, de progreso y de cultura, para eso sale as luz La Voz de Leiza, periódico libre, imparcial e independiente, a quien no atan ni compromisos de partido, ni relaciones de política subalternos...”

Aurreneko alean ez, baño hurrengoetan euskarazko lanak ere badaude, Emeterio Arreseren poesiak eta abar. Azkeneko bi aleetan “Euskal Gayak” izenburuaren azpian daude euskarazko lanak.

PILOTA PARTIDUE

Aurreneko alean aspaldiko pilota partidu baten berri ematen du. Premin de Iruñak (hau da, Ignacio Baleztenak) eskribitzen du *“Un partido de pelota de 1759”*. Pilotari bat iturendarra zen: Armasa, eta beste uitziarra: Juan Bautista Baztarrica. Malerrekakoak eta Berutakoak Armasaren aldekoak ziren eta Aresokoak, Araizkoak eta Larraungoak berriz Baztarrikaren aldekoak. Eta Leitzen erasotearrak eta elgoiendarrak uitziarren aldekoak, eta gorritzarandarrak eta elbarrendarrak iturendarraren aldekoak.

Apustu asko egin zen. Leitzen, Benardino Zufiaurrek eta Manuel Loperenak zekorria yokatu zuten. Zufiaur Armasaren aldekoa zen eta Loperena Baztarrikaren aldekoa.

Partidue Leitzen yokatu zen eta sekuleko yendeketa bildu zen. Eguerdiarte guzie aritu ziren pilotan. Eztabaida asko izan zen partidu honetean. *Begira zer dion Premiñek: “El pardido, según cuentan, fue reñidísimo, y duró toda la mañana, pues a cada quince se promovían disputas, sobre si era falta o buena, si el sacar el de Ituren, no había avisado con tiempo, si el de Huici había mojado una vez con saliva la pelota, etc., etc.”* Eta tanto eztabaidagarri bat zela eta bi aresoar eta ezcurrar bat borrokan hasi ziren: *“En un tanto dudoso, la disputa llegó a su apogeo. En un lado de la plaza, Joanes de Arraiago y Marierramus de Asenalde, vecinos de Areso, se andaban en borroquetas, con Martoshé de Ezcurra. En torno de los de Huici se agrupaban los de otros lugares de Larraun, dispuestos a rechazar la agresión que se avecinaba por parte de los de Beruete, Ituren y otros pueblos de la regata”*.

“El alcalde de las villas de Leiza y Areso, por Su Majestad, el ilustre señor Miguel de Eguzkiza, rodeado de los regidores y alguaciles, en medio de la plaza, con



la vara real en alto, ordenaba calma... cuando en esto ¡can! ¡can! ¡can! Se empezó la campana de la parroquia a pegar el Angalus". Apezak plazaren erdira aterata egin zuen errezoa eta ordintxe yendea baretu zen.

Armasak irabazi zuen partidue. Beraz Loperenak zekorria galdu zuen, baino ez zion eman Zufiaurreri. Hara zer gertatu zen: "Pasaron varios días sin que por las mentes de Loperena pasase la idea de pagar a Bernardo de Zufiaurre el novillo, objeto de apuesta; por lo cual éste le puso demanda verbal, y días después, el señor Alcalde, Juez ordinario de las villas de Leiza y Areso, celebró audiencia y en ella, después de hacer jurar a las partes y testigos sobre la cruz de su vara y palabras de los Santos cuatro Evangelios, y oír a todos y cada uno de ellos, condenó a Manuel Loperena entregase a su contrario diez pesos. Pues el novillo no fue posible pagarlo, por la sencilla razón de que tanto él como otros varios animales domésticos sucumbieron una semana hacia, para la comida que siguió a los funerales de la mujer de Loperena, muerta días después del famoso partido".

Alajañena segizioako bazkariak egiteko zekorria eta beste azinda batzuk hil zituzten. Tripazai galantak ziren lehengoak ere!

ANTZERKIA

Ikusten denez garai hartako leitzarrak ez zebiltzen ttiki-txar! Furi furian zeuden antzeslanak ekartzen zituzten Leitzera. Kontsejuan antzesten zituzten. Ikus dezagun zer dion gure periodikoak: "Vinieron a la villa los inteligentes jóvenes Egilegor y Beorlegui, miembros destacados del Cuadro Dramático de la Academia de Declamación Vasca, que dirige en San Sebastián el cultísimo maestro y escritor eúskaro don Toribio Alzaga".

"Dieron los citados jóvenes dos obras de Guignol, tituladas «Kaska-Gogorra», original de don Toribio Alzaga,

y una reducción del juguete cómico de don Marcelino Soroa, titulado «Ezer ez eta festa»".

LASTERKA APUSTUE

Lekunberriko Bixente Errok eta Berastegiko Pedro Etxeberriak lasterka apustue jokatu zuten 1921ko azaroaren 26an. Leitzeko Lopeneko ataritik San Antongo gainera, yoan eta etorri hamabost kilometro. Lekunberriarrak irabazi zuen eta berrogeita hamabost minutu eta berrogeita sei segundotan egin zuen ibilaldia. Galtzaileak, berastegiarrak, bost segundo gehiago behar izan zituen. Mille eta bostehun lagun bildu omen ziren apustu hori ikustera.

FIRMATZEN EZ ZEKIEN ALKATEA

"Un alcalde analfateto. No es de Leiza pero como si lo fuera" dio periodikoak. Nafarroako Boletin Oficialean irakurri zuten Lizarraga herriko alkateak, Manuel Navarrok, ez zekiela firmatzen. Eta periodikoarekin ez zen giro: "¡Eh, señores, que eso no lo permite la ley! Si el alcalde no sabe firmar, que se vaya a su casa o lo hagan ir". Gero beste periodiko batzuk La Voz de Leizatik berri hau hartu eta argitaratu zuten. Azkenerako Madrilgo La Libertad periodikoak argitaratu zuen eta orduan conde de Coello de Portugal ministroak irakurri zuen eta alkate hori bota zuen kargutik. Leitzeko periodikoak balentri hau harrokeriz kontatzen du baño nik pentsatzen dut orduan, eta geroago ere bai, izanen zirela herrietan firmatzen ez zekiten alkateak. Eta gainera izan zitezkeen agintari honak. Alkate "ilustratuak" dituzten herrietan ere makinabat aldrebeskeri ikusten da!

ASTAITZ

Ateraldik eta ixtorik

Agure egoskorra

Joan erretxiñe, zekena eta zitala zen. Iñoren esana egiteko ez zen ona. Beti berea egiten ohitue zegoen eta kaskallu amorratue zen. Eta gainera gauze guziri beti alde txarra ikusten zioten horietakoa zen. Etxean bazuten erloju eder bat pendulu eta bi pisu haundirekin, bere attunaren attunak erosie. Erloju horrek orduak jotzen zituen txin, txin, txin... eta joanek esaten zuen: *“Ordu bat gutxiago bizitzeko”*.

Beste etxe batera ezkondu zen eta bere emaztearekin beti inki-manka ibiltzen zen eta azkenean paperak erre zituztenean bere jaiotetxera bildu zen.

Etxalde ederra zen. *Azienda* asko zuten eta erleak ere bai. Behin erlekumea jaio zen eta eltze tapak eta segak tin, tin, tin... jo zituzten erleak alde egin ez zezan baino erlekumeak ihes egin zuen.

Ordun etxeko nagusie, Luis, Joanen iloba, Goizueta-ra joan zen oinez erlekumea erostera. Eta illun gorotz egin zuen eta gizonik ageri ez. Etxekandrea, Ixabel; kezkatu zen ia bere senarrari zerbait gertatu ote zitzaion. Goizuetara joaten zenean, Luisek bazuen ohitura itzulerakoan auzoko etxean sartzeko. Eta Ixabelek jakin nahi zuen han ote zegoen bere senarra. Hasi zen erreguka Joani auzoko etxera joan zedin baino agure axolkabea beti aitzaki-maitzaki. Noizbait ere lortu zuen Ixabelek agurea etxetik ateraraztea. Baino handik belaxe agurea etxera itzuli:

“Hezurretaraino sartzen den hotza dago eta lastikue hartu beharko dot”. Lastikue jantzita joan zen eta bitartean Ixabel burutazioetan: *“Honezkero liñarriaren paretik haruntza behar zuen. Ia azkar joaten den”*. Baino handik belaxe buelta berriz:

“Euri pixkobat hasten do eta guardasola ere hartu beharko dot ba”.

Guardasola hartuta agurea atera zen etxetik eta Ixabelek zioen berekiko: *“Agure berekaletza hau beti aitzaki bila. Honezkero liñaputzutik aurrera behar zuen. Ia behingoan joaten den”*. Baino handik belaxe etxera berriz: *“harri bonbollo izugarrik daude biden eta makille ere hartu beharko dot ba”*. Urritz makille hartu eta abitu zen. Eta Ixabelek nazkatuta: *“Agure zarpail hau zuzenean joan balitz honezkero Katzarri haunditik aurrera behar zuen”*. Handik belaxe agure berekoia berriz etxera:

“Leizen baño illunego dago. Deus ere ez dot ikusten eta linterna ere hartu beharko dot ba”. Ixabelek kandela biztu eta eman zion linterna. Eta Ixabelek zion: *“Haurrei afaria eman beharra dauket, bestela neroni joanen nintzeke agure motel hau baño lehen”*. Handik belaxe buelta berriz etxera:

“Haize izugarrie dabil eta kandela itzali igoal eginen dit eta mixtoak ere hartu beharko dittot ba”. Ixabelek linternaren atea ireki, mixtoak sartu eta eman zion linterna. Ixabeli begiak nabartu eta muturrak gorritu zitzaizkion. Sutu zen eta bere onetatik atera zen. Handik belaxe agurea berriz bueltan:

“Lehenago bati gauargie atera omen zitzion. Neri ere igoal aterako zait eta eskapularioak eman behar dizkidatzu hura uxatzeko”. Ixabel ateleakumean bi besoak botata zegoen eta esan zion: *“Eskapularioak behar dituzula? Hara, berriz itzultzen bazara eskapularioen ordez erlojuaren pisuk yarriko dazkitzot barrabiletaik zintzilik!”*. Eta morrolloz atea itxi eta kanpoan utzi zuen.

Orduntxe joan zen agure maltzurre auzoko etxera eta han zegoan dagoaneko Luis, leher egine, pixko bat atxoten. Etorri ziren etxera eta etxekandrea lasaitu zen.

ERLEERI BURUZKO OHITURAK

Lehenago etxe askotan izaten ziren erleak. Etxeko pareten kontra edo etxe inguruetan nonahi ikusten ziren erle-eultzek. Eztiak estali haundie zuen etxean: atsaldekoa egiteko eta abar. Erremediotako ere erabiltzen zen. Adibidez bat errefiuretu eta zintzurreko miñez yarri zela eta esnea eztekin ematen zitzaion.

Peraska urtuta berriz kandela egiten zen. Kandela etxean argi egiteko eta elizeko sepulturan yartzeko erabiltzen zen. Etxean norbait hiltzen zenean eultzen aurrera joan eta erleeri agintzen zitzaien eztea egiteko.

Astaitzagako amona hil zenean gure attunak erleeri esan omen zioan: *“Erleek! Etxekandrea hil da eta ezte in”*.

GAUARGIK

Joxemartin gauetz herritik etxera heldu zela gauargie atera omen zitzion. Zezen haundi bat abatik eta buztanetik sugarra eta txinparta izugarrik botaz eta

argi haundie eginez trenbide bazterreko betelana behere jeisten ikusi zuen. Lurra beratza zegoen eta zezenak hanka zulo haundik egin omen zituen. Joxemartin joan zen hurrengo goizean hanka zulo horik ikustera baño han ez omen zegoen hanka arrastorik.

SUGARRA MENDI BATETIK BESTERA

Mutiko ttiki bat etxera heldu zen gauze bere atterekin. Hontzak oihuka ari ziren gaztain zuloetan eta zakurrak adiika etxe atarrietan. Eta mutikoak ikusi zuen sugar haundi bat mendi batetik bestera iragotzen. Ikaratuta galdetu zion atteri ia zer zen sugar luze hura. Eta attek esan zion:

-Gaiztakeri izugarriak eta oker haundiak egin dituztenen animak infernuak ez ditu hartzen eta zuloetan egoten dira. Ehun urte zulo baten egoten dira eta gero beste zulo batera aldatzen dira beste ehun urterako. Eta hola beti. Sugar beldurgarri hori anima horietako batena da, zulo batetik bestera aldatzen ari dena.

ERATSUNDAR BAT TXARTELETAN

Eratsundar bat morroi zegoen Berrobin 1949. urtean. Alorretako arbiak loratu ziren eta hori izaten da seinale garizuma etorri dela. Joan zen txarteletara pazkoazkoa egiteko eta apezak galdetu zion:

-Nondik sartzen da elizera?

Eratsundarrak eman zion erantzuna ez da luzea baina bai esanguratsua. Ia zuek asmatzen duzuen. (Erantzuna behian)¹

KAMISONA LEPATXOKOAN

Lehenago ezkondu behar zutenak galak ateratzera joaten ziren. "Galak atera" esaten zitzaion zuritasunek eta arropak erosteari. Horretarako Tolosara edo Iruñera edo beste lekuren batera joaten ziren erosketak egitera. Esaten zen: "Galak atera omen dittue eta laister ezkontzekoak omen dira".

Pareja bat joan zen galak ateratzera eta andregaiari kamisona erostea ahaztu zitzaion. Gero bere lagun batek galdetu zion ia zer moduz galak eta andregaiak esan zion: "Pardel haundi bat dena arropaz betea ekarri diñeu, baño kamisona erostea ahaztu eta berriz joan beharra nan".

Eta lagunak esan zion: "Neska, alper-alperrik don kamisona. Nek ezkontzako gau guzin lepatxokoan eduki ninyenen kamisona!"

GAZURARRITATIK SUA HARTU ETA ETXEA ERRE

Gazure abatzean jarri, suan harriak berotu eta abatzera bota. Gazure borborka aritzen zen irakiten Labe Garaietako metala zirudiela. Gero artajorran eguzki dindaletan ari ginenean gazure hotz-hotza edeki sartzen zen.

Behin, Astaitzagan gazurarrrik solairuaren gainera bota eta su hartu eta etxea erre zen. Etxe hura orain Astaitzagako ondoan baratza dagoen lekuan omen zen. Horregatik orain leku horri "Orobe Zahar" deitzen diogu. Sute hori Trintate egunean gertatu omen zen. Horregatik Trinitateri Astaitzagan "Trini txarra" deitzen zioten.

Noiz gertatu zen sute hori? Ez dakit ziur esateko. Baina Astaitzaga 1800. urtea baino lehen orain dagoen lekuan zegoen. Astaitzagako ekulluan bada zulo bat urdaiak gordetzeko egina. Frantsestean urdaiak ez lapurtzeko han gorde zituzten. Horrek esan nahi du ordurako Astaitzaga orain dagoen lukuan zegoela eta sutea lehenagotik izandu zela. Nik kalkulaten dot etxea zaharra XVIII. mendearen erdi aldera erre izan zela.

ASTAITZ



1 Bataiotik.

Oporrak noiz?

Uda hemen dugu jada, egunak denbora luzez argituta, jendez betetako terrazak, eguzkitako krema usaina, eta lanegunen, jaiegunen zein pesta ezberdinen arteko engranje moduko batez zirriborratzen diren egutegiak. Uda bere osotasunean. Honen harira zer diogu militantziari dagokionez? Militantziak oporrak hartzen ditu? Plazaola aldizkariak eskaintzen digun espazio honetaz baliatuko gara gaurkoan Lañaidek Leitzako Neska* Gazteen taldekideok feminismoak oporrik hartzen ez duela helarazteko.

Aipatu moduan, urtaro berri hau iritsi den honetan, gure iruditegia osatzen duten ideien artean ere bada-go parrandez jositako denboraldiaren ideia, hauek aurrera ateratzeko herri zein hirietako eragileak lanean dihardute hilabete luzez egitarauak osatuz denok gozatzeko festak izan daitezen, eta hauek iristear dauden horretan guk ere badaukagu zer esan, aurreko urtean aldizkari honetan bertan Leitzako Mugimendu Feministak salatzen zuen moduan pestetan ere botere harremanak eta indarkeria presente baitaude.

Uda ate joka genuelarik testuinguru gordina aurkeztu zitzaigun emakumeoi, ez dezagun ahaztu hilabete bateko epean hiru emakume erahil zirela Euskal Herrian eta horren baitan plazan gauzatu zen elkarretaratzean gure kezka adierazi genuen. Bestetik, herri, auzo zein hirietako jaiak eta parrandak areagotzen doazten heinean badugu dagoenerako hainbat lekutan eman diren erasoak salaketan berri. Honen aurrean, ekainean Euskal Herriko Neska* Gazteek *Berria* egunkarian zioten moduan guk ere esanen dugu: "Aski da, ostia!".

Ez dugu terminologia hau erabiltzeagatik barkamenik eskatuko, testuinguru honek beldurra sor dezakeen arren, guk amorrua sentitzen dugu, eta jakin dadila amorrurak horrek indartu egiten gaituela eta erronka zein hausnar berriei tinkoago erantzuteko ahalbidetzen garelara.

Emakumeok pestei begira gure gain hartzen ditugun arduren zein erantzukizunen pisua azpimarragarria da, gure espazioetan ziur senti gaitezen denbora



luzez diardugu sareak indartzen, baliabide zein ekin-tza ezberdinen bitartez (autodefentsa tailerrak haien artean) gure arteko kolektibotasuna ehunduz eta gu ahaldunduz, beste hainbeste lanketen bitartez gure gorputzez eta espazioez birjabetzen. Nahikoa lan gure gain emakume izate hutsak sistema heteropatriarkal honetan dakartzan biolentzia guztiei aurre egiteko.

Baina espazioen ziurtasuna bermatzeko imajina ditzakegun baliabide guztiak eskuragarri izan arren, zuek, gizonak erantzukizun hau zuen gain hartzeko garaia ere bada. Ez dugu nahi, inondik inora ere gure segurtasuna zuen gain hartzea, salbatzaileen ipuinez nazkatuta gaude. Zuen lana aurretikoa da, errebisatuak izan zaitezten nahi dugu, feministon hitzak kontuan har ditzazuen, zuen anaitasun hori errebisatzen dezazuen, koadrilako erasotzaileak babestez uzteko garaia da. Joan den urtean Leitzako Mugimendu Feministatik aldizkari honetan esan zen bezala, guk ere berriro gogorarazten dizuegu "ederra da parrandez gozatzeko, baina zure gozamenak ez dadila izan beste norbaitenaren muga".

Beraz, parrandak bai, baina hauek kontzientzia feministak, antiarrazistak, lgtbiq+ k zeharkatu behar dituzte. Egun hauek denok goza ditzagun nahi dugu eta hala opa dizuegu guztioi.

GORA LEITZA ANTIARRAZISTA, ANITZ ETA FEMINISTA!

LEITZEKO LAÑAIDEK

“La Voz de Leiza”

Orain dela 102 urte, hasi eta urte erdiz hilero jarraian landu eta kaleratu zuten “La Voz de Leiza” deituriko aldizkaria esku artera iritsi zait eta horrek aurtengo aldizkarian idazteko aukera eman dit.

Lehen zenbakia 1921eko abenduaren 4an argitaratu zen pezetaren 10 zentimoko prezioan, eta honela, sei orrialdeko sei ale desberdin ezagutu dira. Azkena, 1922ko maiatzaren 22an atera zen.

Nahiz eta euskaraz idatzitako zerbait egon, gehiena gazteleraz idatzita agertzen da. Helburu nagusia garaia hartako kazikismoa salatzea izan zen, udal-kideena, batez ere. Jose M. Lizarraga izan zen aldizkariaren sortzaile eta editorea.

Esan bezala, hauek eskuratu eta irakurri ondoren interesgarria iruditu zait hauen edukia aipatzea, askotan geure buruari egoera eta iragandako garaietan ezartzea zaila egiten baitzaio eta era berean hori bera, interesgarria izan daitekeela pentsatzen baitut.

Oharrak:

- Oraingo honetan, lehenengo aldizkariaren zati bat besterik ez dut azalduko.
- Nahitaezkoak ez diren kasuetan pertsonen izenak ez ditut aipatuko.
- Saiatu naiz, generoari begira, modu parekatuan idazten, baina jakin dezazuen, protagonista gehienak gizonezkoak dira, beraz, batzuetan zail samarra gertatzen da.
- Ahalik eta itzulpenik zehatzena egiten saiatu naiz, nahiz eta batzuetan itzulpen zuzenena ez izan, horrek ematen baitio esanahiari hurbiltasun handiagoa.



“GURE PROGRAMA”

Sarreran, Leitza 2000 biztanleko herria dela eta gisa honetako aldizkari baten sorrerak zenbait alarma moduko egoera sortu diela, aipatzen du. Hau justifikatzeko, Plazaola trenaren ezartzearekin alderatzen du. Trenak Iruñeara joanda Madrilgo bidean jartzen gaitu eta Donostia aldera hartuz gero, Parisekin lotzen gaitu; horrek aurrerapena eta beste bizimodu bat sortarazi digula esaten du. Beraz, beldur direnek, egunkariaren sorrera ere aurrerapen moduan ulertu beharko luketela diote.

Herri “generoso, natur baliabideetan aberatsa eta arrazaren dohainak mantentzen dituena” izanik kazikismoa (udal-administrazioaren aldetik, batez ere), hitz gogorrak jaurtiz salatzen du: *ignoranteak, presuntoak, irresponsableak, ineptoak...* Diputazio Foralak, ezjakintasunetik, tokiko kazikismoa mantentzen laguntzen duela diote. Diputazioak berak, hau guztia dakienean, kazikismo zantzuak zuzentzeko bidea hartuko duela pentsatzen dute.

Aldizkariak, denon aurrean, arazo urbanistikoak, ekonomikoak, administratiboak, industrialak eta kulturalak eztabaidatzeko bidea eman nahi du. *La Voz de Leiza*, egunkari libre, inpartzial eta independente moduan agertzen da.

Azalpen hau (programaren aurkezpena, alegia), partaideen borondatea azalduz amaitzen da eta udal nahiz elizako autoritateak, auzo guztiak agurtzen ditu, baita Nafarroako prentsa guztia ere (“*lo cortés no quita lo valiente*”-esanez).





IRAGANA, ORAINA eta ETORKIZUNA Leitzan.

Mendiaren ustiaketa dela eta, Nafarroako herririk aberatsenetarikoak izanik, Leitzak zergak ekiditeko aukera izango luke, baldin eta administratzaile ego-kiak agertuko balira. 1920. urtean, 92.000 pezeta (egungo 550€) atera ziren, urte honetako gainerako aurrekontua baino 15.000 pezeta (90€) gehiago. Azken urte horietan, 500.000 pezetako balioa zuten natura-ondasunak saldu ziren, baina irizpide garbirik gabe inbertitu ziren.

Honez gain, harria bezala, erreka eta egurra behar bezala ustiatuz gero, herria eta berari dagozkion erai-kuntzak eta saneamendu hobekuntzak egin daitezke arazorik gabe. Ondoren, hau guztia ikusita, hainbat galdera luzatzen dituzte: *“Behar bezalako eskola ote dugu? -Ez”*-diote. Eta gisa horretan galdera bertsuak; *Alhondiga? Kontzeju-lokala? Mataderoa? Auzoen etxeak berak (komunik gabekoak)?...* Honez ondorioz; *Udalak ez ditu betetzen Udal-ordenantzak*- diote. Beraz; udal ordezkariari kritika gogorak bidaltzen dizkiete.

“Borondate ona balego, soluzio egokia izanen luke ego-era honek, eta horrela bertakoek ez lukete kanpora alde egin beharko, Leitza, Donostiatik Iruñea bitartean herririk aberatsena baita. Eguneko indar elektrikoa aprobetxatuz industria berriak sor litezke. Herriaren interesen alde eginez gero, lortu daiteke” ...

Beste atal batean aipatzen da, *“azkeneko lau urteak kanpo utzita, aurreko 35 urteetan herriak auzo bakoitzak probintzia-zergetatik ordaindu behar zuen kopururitik erdia soilik ordaintzen zion Diputazioari eta horren ondorioz, 300.000 pezeta gutxiago aurreztu zituen”*. Horrez gain, denentzat legea berdin aplikatuta bidezkoa ez zela diote, *“500 pezeta ordaindu behar dituenari 250 pagatzen dizkio, baina 5 pezeta pagatu behar dituenari, 2,5 aurreratzen dizkio. Injustua da, ordaindu beharrekoak batzuen ahalmen ekonomikoa areagotu besterik ez duelako egiten”*-esanez amaitzen du.

“GARCILASO”ri OMENALDIA

Hau modu laburrean kontatuko dut, nola “Garcilasori” (*“Diario de Navarra”ko zuzendaria eta Marrocoko gerra erreportaria*) aipamena egiten dioten, bere lana goraiatuz eta kazetari batek omenaldiaz gain, titulu ofiziala eskaintzea proposatzen du. *“La Voz de Leiza”*k bat egiten du eskaera honekin.

MEDIKUAREN IZENDAPEN ILEGALA

Garai hartan mediku zena zendu eta mediku-plaza betetzeko deialdia zabaldu zuten. Udalak izendatzen zuenez, legeak hala behartuta, bi baldintza ezarri zituen: Bata mediku titulua eta bestea zerbitzu-orria aurkeztea. Toki oso desberdinetako zazpi medikuk izena eman zuten eta horietako batek ez zituen beharrezkoak ziren baldintzak bete edo aurkeztu. Ondoren, aipatutako medikua bera izan zen aukeratu zutena.

Aldez aurretik, zurrumurruak zabaldu ziren herrian non, mediku honen alde eginen ote zuten udalaren eta *“aukeratzeko batzordea”*ren aldetik. Hauen aurrean, udalak uko egin zion esandako horri guztiari. Dena den, mediku hau bera aukeratu zuten. Modu honetan, idazki batean, ilegala izateaz gain, hitz gogorrez beste





medikuei trufa egitea egotzen zioten udalari. Auzo batek salatu zuen batzarrean eta alkateak, berriro gezurra esanez ukatu zuen denen ahotan zegoena.

Sei zinegotzi izan ziren kontrako botoa eman zutenak, baina alkateak epaimahaiko gainerako kideen botoekin irabazi zuen eta lanpostua eman zioten honi. Diputazioan helegitea aurkeztu zuten eta hurrengo aldizkarietan gaiari jarraipena emanen ziotela ziurtatu zuten aldizkari ale honetan.

Egunkari honetan bertan, medikua izendatzeko egindako batzarrean, salaketa jarri zuen aipatutako auzoari alkateak emaniko tratua gogor kritikatu zuten gutun batean. *“Kulturarik eza”* erakutsi zuela eta behar ez zuen moduko hizkera eta hitzak erabili zituela aipatzen diote, modu sendoan.

HERRIKO AURRERAPENAK: “AMERIKANOAK” (INDIANOAK)

Estatu mailako *“El Sol”* egunkariak goraiatzeko indianoek zer nolako laguntzak eskaini zituzten berauen herrietan, eta horren harira, inguru honetan, berdin gertatzen dela aipatzen dute; Elizondon, Beran, Lekunberrin, Goizuetan... Eta bereziki, herri-



koa aipatu aurretik Aresoko kasua azaltzen dute, non 500 lagun eskas bizi diren eta eraikuntza partikular nahiz publikoak eraiki diren hauen laguntzaz.

Leitzatik Amerikara jende asko joan zen eta horren ondorioz familietara dirua bidaltzen zuten edota eraikuntzak egiteko donazioak igortzen zituzten.

Hona hemen eraikuntzaren adibide batzuk: Ariñaldetik elizara doan bidea, etxe partikularrak, baserrien handitzeak, txaletak, elizako organoa, hilerriko panteoia, elizako dorrea eta fatxada... Hauek guztiak, esan bezala, Ameriketara (Montevideo, Kuba, Puerto Rico ...) joandako leitzarrek eginiko donazioak dira.

Ondoren aipatutako elizako dorrea, fatxadaren gastua eta honetarako emandako laguntzak azaltzen ditu. Gastua osorik: 14.192,60 pezeta. Partikularren donazioak: 5.865 pezeta.

Amaieran, *“laguntzaile”* hauei behar adinako aitortza ez zaiela eskaintzen kritikatzeko dute.

GORRIZTARANGO BIDEA...

Artikulu honetan, komunalaren salmentak erabiliz, Gorriztarango bizilagunek, auzo horretako garesti diren hainbat hobekuntza ziurtatzeko (zubiak eta errepideak) *“kazikismoaren aldeko botoak”* ematen dituztela kritikatzeko dute.

1759ko PILOTA PARTIDA

Premin sinadurarekin agertzen da *“El Pensamiento Navarro”* egunkaritik hartutako *“La Voz de Leiza”* k argitaratu zuen kontakizuna. Hasieran, mendialdeko ez hitz egiten du, dirutan aurrezteko gaitasuna badutela esanez, baina zenbaitetan (adibide gisa, Iruñeara joaten direnean) egoera aldatu daitekeela, beste modu batean manejatzen dute dirua eta halakoetan, erraz, apustu desberdinak jokatzen dituztela adierazten du. Honetarako ondoren azaltzen den adibidea.



... 1759an Iturengo herritar bat (Armasa) eta uitziar bat (Juan Batista de Bastarrica), pilota apustu bat jokatzeko apustua egitera iritsi ziren. Leitzan jokatea adostu zuten. Bakoitzak bere aldekoak zituen, eta leitzarrek ere banatuta zeuden. Erasote eta Goiengoak, uitziarraren alde. Gorritarangoak eta Barrengoak, ittuindarraren alde. Era berean, aresoarrak, Basaburukoak, larraundarrak... tartean ziren. Apustuan, zekorra. Edozeinek irabazita ere, galtzaileak zekorra irabazleari zor. Hala eta guztiz ere, epe horretan zekorra hilko balitz, 10 peso (51 pezeta) ordaindu behar lizkioke irabazleari.

Partidu borrokatua eta liskartsu samarra jokatu zuten. Areso eta Ezkurrako hainbaten artean gogortu zen disputa eta borroka. Leitzako alkateak, aginte makila eta guzti, ezin izan zuen giroa baretu, egoera gero eta larriagoa bihurtzen ari zen. Halako batean, eliz-ezkilek Angelus garaia zela adierazi zuten. Jende ugariaren artean apaiz asko zeuden eta horietako bat plaza erdira atera eta ozenki Angelusa erreztatzen hasi zen. Denek, zutitu eta zapelak eskutan, errezoa jarraitu zuten. Honek giroa lasaitzeko balio izan zuen eta partida amaierara arte giro lasaian jarraitu ahal izan zen. Azkenerako, ittuindarrak irabazi zuen.

Uitziarren alde apustua egin zuenak ez zuen txahala emateko asmorik, zekorrik ez baitzuen. Kontua da egun batzuk lehenagotik, partidaren ondoren, uitziarraren emaztea hil zela eta etxean zituen aziendak hiletaren bazkarian erabili zituela. Epaiketa baten ondorioz, 10 peso ordaintzera behartu zuten.

“LEIZA”

“La Voz de Guipúzcoa”ko “kronista” batek sinaturik, Leitzako herriari buruzko definizio pare baten ondoren, trena jartzearen garrantzia aipatzen du berriro ere. Aipamen historikoak egiten ditu, Baezako gudan



leitzarren parte-hartzearena, adibidez, eta gipuzkoarrek herria erre zutenekoa tartean daudelarik, bestea. Hau guztia udaleko artxiboko zaintzailaren begiradapean.

Beste zati batean errepide baten zatia egiteko subasta bat nola burutu zen kontatzen du. Udaletxean udal taldea eta sekretarioa bertan direlarik, albienteak jarritako makila lurrean etzanda eta alkatearen galderari erantzunez hasten da enkantea. Idazkariak euskaraz eta gazteleraz irakurtzen ditu baldintzak. Proposamenak eginda, eta “*inork mehoratzen al du?*” galdetu ondoren, albienteak hiru alditan esaten du: “*Pasatuko naiz*” (makil gainetik, alegia). Inor gehiagok deus esaten ez badu ere, ontzat ematen da proposamena. Idazkiaren amaieran azaltzen da: “*Justizia zaharra, baina ona. Justizia komunista*”.

Hirugarren atalean, Leitzako ezaugarri fisikoen definizioa egin ondoren, herritarrek lasaiak direla, “*gaueko bederatzitarako denak oheratzen dira*” esaten du. Bestetik, osasunerako “*hondartzetan aurkitu ezin daitezkeen*” baliabideak aurkitu daitezke ikaragarri aberatsak diren ur-termaletan eta herritarrentzat ez ezik, turistentzat izugarri onak eta egokiak direnak. Hauen artean: *Txaragorri, Giltzuniturri*.... Baina, turismoa aberastasunarekin lotuta dagoela jakin arren “*herritarrek kanpotarrak ez dituzte ikusi nahi, kanpokoek traba egiten baitute... Herrikoak komunistak dira eta kanpotik etor daitezkeen turistak bezalaxe, trena ere gorrotatzen dute*”. Hala eta guztiz ere, bizitza eta garaia aldatuz doaz eta “*hau oso herri txikia dela kontuan hartuz, lastima aspalditik datorren izaera komunista ez zabaltzea bestelako herritara ...*”.

BESTEAK...

Lehenengo aldizkari honetatik orain arteko hamaika artikuluko komenta nitzakeen, baina luzeegia gertatuko



litzateke, festa garaian gaudela jakinik. Nik jarraituko dut lantxo honetan, ikaragarri interesgarria iruditzen baitzait, orain dela 100 urte, nolako bizimodua zuten imajinatzeko balio duten idatzi labur hauek esku artean izatea.

Amaitzeko, egunkari honen hurrengo hiru orrietan zeri buruz idazten duten aipatu besterik ez dut eginen.

Zerrenda: Leitza maite dutenak (adibide garrantzitsuak), *Bizimodu santua*, *Leiza*, *Euskal Antzerkia Leitza*, *Familiako bizitza* (sarrera, etxe pozgarria, gaixoak, bidaiariak, pentsamenduak, ene emazte nafarrarentzat), *Kaleko boza* (benetako kexa gutuna-alkohola gazteengan, mozkorrak, herriko garbiketata...), *Berriak*, *Oharra*, *Euskal "sonatina"*, *Echenique Anchorena*, *Herri zaporea eta ingurugiroa*, *Uraren erabilera*, *Gipuzkoaren barrena bidaia*, *"Baturrillo"* (umorea, indirektak, broma-txistekak ...).

**Ilustrazioak, lehenengoa izan ezik, Udalak 2017. urtean, "Leitza argazki zaharretan" liburu-bildumatik argazkiei ateratako argazkiak dira. Guztiak, 1921. urtekoak ez badira ere (gaurko idazkiak erakusten duen urtea) 20. hamarkadakoak dira denak.*

Ongi igaro Pestak (eta bestelako egunak ere bai, noski...)

MIKEL ILLARREGI

Zirtez zipriztindutakoak, zuran zizelkatuak

*Zauri zaparradak,
zorrotutako zalapartak,
zitalkeriaz ziztatuz,...*

zorabioak zeharkatuz

*... zaku zaharrearan zimelduta,
zoriontasun zurrunbiloaz zurrupatuta,
zorion zurrumurruaz zapalduta.*

*Zipriztinak zartatutako zirrikituak, zabalduz,
zeruak, zoriona zainduz,
zorabioak, zoritxarra zintzilikatuz*

Zirtez zipriztindutakoak, zuran zizelkatuak.

GARBIÑE SAGASTIBELTZA LIZARRAGA

ENPATIA

*Zure soinean jarriko naiz.
Zure begiekin begiratuko dut,
zure malkoak xurgatu
ta zure irria dastatzeko.
Zure beldurrak jantziko dittut,
zure kilimekin apaindu
ta zure usain berberaz perfumatu,
zure hitzak
ta zure bizitza ulertzeko.
Ahaztuko ditut juizio ta prejuizio petralak
kenduko dut begietako lausoa
benetakoa zaren hori deskubritzeko.*



HITZAK: GARBIÑE SAGASTIBELTZA LIZARRAGA
ILUSTRAZIOAK: ITZIAR FAGOAGA IRURTIA

Hika eta Toka, noka ere toka!

ALKE Leitzako kultur taldeak liburua argitaratu zuen iazko abenduan: *Hika eta toka. Noka ere toka!* Liburu horrek leitzar gehienok dugun hutsune bati erantzuteko sortua da, gure hizkuntzaren aberastasunean dugun hutsune garrantzitsu bat betetzeko: erregistro informal, lagun-arteko, berdinen arteko hiketako betetzeko hutsunea. Hala, zorionez, gaur egun ikasi nahi duen edozeinek hortxe dauka tresna osatu bat: liburu bat aukeraematen duena hiketako molde gramatikaikuspegi batetik ikasteko, adibide errealez-hornitua; eta, gainera, liburu oso bat gure herriko kontuez eta kontakizunez betea, denak ere hiketan idatziak. Bidenabar, gure sustrai, ohitura, izaera eta nortasunari buruzko gauza asko ikas litezke, liburuan murgilduz gero.

Den moduan dela ere, hizketan, baita hiketan ere, alde-aldera ikastez gero, liburuak liburu, mingaina astindu behar da. Horretarako ezinbestekoa da aritzea, mintzatzea, idaztea, mingain-eskuak mugitzea. Hori hala da, gainera, edozein hizkuntza edo mintzamolde ikasteko: hizkuntza bat edo hizketa-molde bat ikastez gerotan, erabilera baita gako nagusia. Eta horixe da, hain zuzen ere, guk dugun asmoa: gure hiketako molde ikastea, erabiltzea, noka eta toka aritzea. Eta hori nola egiten da? Ba, liburua egiteko erabilitako estrategia bera erabilia: Dakitenei galdetuta, jakina. Dakienik ez omen da-eta jaiotzen. Hika eta Toka, noka ere toka!



Hala, oraingo honetan, herriko bi hiztun zoragarriekin egon gara hizketan tarte batez, Maria Jesus Sagastibeltzarekin eta Miel Sukuntzarekin, eta haiek esandako kontu bi paratu dizkizuegu hemen, zuek ere goza zaitezten haiek maisuki erabiltzen duten hiketako hizketa molde zoragarri horrekin. Hona hemen bi kontu horiek: lehena toka, mutilen arteko moldean edo mutilei zuzentzekoan; bigarrena noka, nesken artekoan edo neskei zuzentzeko eran.

Aizak: ikasik bazekik, baño probatuk hobeki!

Beiñesko Kristobal bertsolarie izaten huen. Da, behin hark behie gaizki somatu, te, albaiteoai deittu behar tzitziola. Ta deittu emen tzeioa ta. Ikusi emen dik behie, ta, ez jakinkio ongi zer tzun. *De, Beiñesek esan emen tzeioan albaiteoai bazittekela erbiunidek* esnea ean eo zerbatte iñe izatea eo: "Bai, behi horrek erbiuniden hozka izanen dik". Ta albaiteoak kontesta: "Erbiunidea... hoi nek ez takit. Ez tot liburutan eta inon ikusten..." Ta Beiñesek ordun: "Liburutan erbiunidea? Nola billatukok liburutan!? Hoik paita zuloatan, da sasitan, da, izateittok eta!" Haren baitten hark: "Hau demonio eroa! Liburutan ez baño, sasitan da paita zaharretan izatek eta hure!". Ta hantxe utzi Beiñisek albaiteoia zer esan etzekila. Horratx! Letratuk bazekik, bai, baño probatuk hobeki zekik!*

***Erbiunidea:** ugaztun txikia, bizkar arre eta sabel txurikoa. "Comadreja" gaztelera.



Aizan! Garai beten zaharrak leizezulora botatzen tzetiñenen

Hik bai al dakin garai beten ze itten tzioan zaharrari, zeak, semek, hak laneako gauze etziela gelditzen tziñenen? Ba, ematten tzetiñenen zulo batea, bizkarren hartu, te bide askoan. Da leizezulora bota, bertan hil zittezen. Legea hala emen huen, ordun. Da bide hartan, erdibiden edo, emen huen harri bet, denak deskantsatzen tzuena.

Hala, biñipin, behin etzeko semek hartu emen din atte zaharra zuloa eamattuko asmoan. Da bizkarren emen zeamenen, da. Denak bezala, erdibideko harri hartan, nekatuxea zenen, atxooten jarri emen don semea, atte re han patute, ta attek esan emen tzeonen: "Seme, seme. Nik e hementxe atxoon nien, neonen atte ekarri nunen." Da semea pentsatzen jarri: "Bai? Ez ba! Neri semek etzeidea holakoik esan behar!" Hartu, te bueltan etxea ekarri atte. Ta han kuidatu hil arten...

Attek esan tzionak eman tzeonen labanazo latza! Ta barrena sartu izanen tztziñonen... Betire, etxea eaman bueltan. Da akabo: legea orduntxe urratu! Orduntxe ohittera hure dena galdue geldittu.

Histori gorra don, gero! Ta gizon hark attei in tze-zaiokenen bestek bezala, haren esanari kausoik ez in, dde zuloa bota. Ta eskerrak etxera eaman tzun atte gizajoa! Gañekoan uainddiken igual seittuko ziñenen lege hark. Guk halako legerik ez giñenen izautu. Gure aurretik huen hori. Baño bittarten, bat zahartzen tzenen, da laneako gauze etzela jartzen zenen, eaman, da leizezulora bota. Da hantxe hiltzen emen hittuen. Lehen lan inddeko pertsona, bere bizi guzin lanen aittue, gero zulora bota, berak ezaguera daukela...

Aizu, eta zu zer? Bo, hiketan: hi zer? Hik e ikasiko al huke hike?

Aizan, neska: *hi re ikasteko asmoan baldin baihaiz, udazken-biden ikastaro moduko zerbatt itteko asmoan geuden. Aorren (irailen) hasi, tte eguerrik bittarten edo, asten behin saiotxo bat indde hiketan ikasten hasteko.*

Aizak, mutil: *Leitzen bertan ikastaro moduko zerbatt itteko asmoa bazeok, eta hik e in hezake, gogoia izan ezkeo. Hartara, hiketan ikasten hasi hinddeke, toka eta noka! Eo dakikena osatu eta aberastu hezake.*

Esanak esan, jakin ezazue laster izanen dela informazio gehiago ikastaro edo tailer horretaz: izena ematea eta, iraupena eta, ordutegia eta egutegia eta.

Aaa! Ez ahaztu: noka ere toka!

Zuri atte

Zuri atte,

Zure begirada goxo ta irrifar ixilaz, hitzez esan zenigukeena baino askoz ere gehiago esanez, agurtu zinen orain dela 20 urte.

20 urte iada,...

Halere, nigan gordetzen ditut zure begirada babeslea eta irrifar gozoa, beheko suaren inguruan izandako hainbat bizipenen kontaktak ta zure bilobekin izandako hainbat momentu.

20 urte iada,...

Makina bat amets, proiektu, ilusio, ekintza eta lan gauzatu zenituen etxetik kanpo ere, bakarrik edo lagun artean, elkarlanean, auzolanean. Beti ikaste-ko prest, erakusteko irrikaz.

Beti jaso izan ditut argazki, artikulua, erreportai eta liburuak. Nire altxorak dira eta, noizean behin, begiradaxoa botatzen diet. Gaurkoan, Aranzadik argitaratu zuen urtekarian, zure lagun Antton Iztuetak, bere eta, zurekin noizpait aritu zirenen izenean, idatzi zuen erreportai xume eta goxoa. Argazki hauetan ere, Batixta Perurena, proiektu ezberdinetan, txondorrek egiten eta karobi lanetan, inoiz hutsik egin gabe, ondoan izan zenuen lagun eta lankide fina.

20 urte iada,...

Zure mendi kuttun, kobazulo eta indusketa arkeologikoetan ez bada zure pausuen oihartzunik entzuten ere, aztarnak errex aurki daitezke.

Buruak ez baititu inoiz ahaztuko bihotzean bizi zaizkigunak, ez da denbora kontua, maitasun kontua baizik.

GARBIÑE



“Oartzunen, Batixta Perurenarekin”.

Pillota hotsen oihartzuna plazan



Etxe-Txuri, zein Torrea aldetik udaletxe aurreko plazara gerturatu eta parez-pare harrizko frontis grixe aurkitzen dunen, ez esan ezunik inpresioik itten. Leitzar gehienak “plaza” bezela ezautzeuna, ofizialki Euskal Herria izenekoa, dotorea da, elegantea, beño aldi beren edozein ekintza informal itteko aukera ematten duna. Urte askoan, elkarretaratze, herri-otordu, kultur-jarduera, azoka, ... ugari antolatu dien lekun, bada 30 urtez ospatu den kirol-ekitaldi berezi bat. Plazako biñakako pillota txapelketa.

Aurten 30. urteurrena bete do Aurrera K.E.-k antolatzen dun txapelketa berezi honek. Balitteke, garai hartan Leitzen pillotan ingurun zeon zaletasunek bulztatuta, bertako bikoteik indartsuna zein zen jakittekiko intentzioakin antolatu izana txapelketa. Edota, igual, Aurrera K.E., kirol elkarte den bezela, Leitzan

kirola sustatzeko asmoakin sortu izana. Ideian funtsei garrantzik kendu gabe, emaitze ikusgarrie izan zen. Leitzar pillotazale mordoxka, elkarren aurka lehiatu baitzien lehen edizio hartan.

Gaur eunen bezela, garai hartan de txapelketa jokatzea ez zen denbora pasa soil bat. Gogoratzen naiz, eskolan oporrak hartu eta apal aurretik asteko eozein eunetan plazara gerturatu ezkeo, Aranburu, Buldain, Mariezkurrena, “Koxton”, Mariñelaretarrak, Zestau anaiek, “Rubio”, Miel Agirre ta beraien izenez gogoratzen ez naizen hainbat pillotari, pillotan nola aitzen zien. Pillota haundi ta beltz horrek ateratzen zun hotsak eta jokatzen zittuen tanto luze eta nahasik atentzioa deitzen zuen. Eskerrak Juantxo Barriola zenak, bere kristalezko botilletan, sarri ur frexkoa eskaintzen zun. Irakurri bezela berezitik asko zun txapelketak. Pentsa, markagalluko lanak, tizan launtzekin, lurren itten zien.

Urtek pasa ahala, plazan jokatzeo era eta erabilten dittun pillotak antzekoak izan arren, txapelketa-



ko pillotarin arten aldaketak izan diela, ukaeziñe da. Hasiara hartako pillotari beterranoak, pillota eskolan babesen genbiltzen pillotari lekue utzi ziutean eta konturatzeako, gaur egungo Txoperena, Goikoetxea, Sagastibeltza, Arraras, Garro eta datozen urtetan hasiko dien pillotari gaztek nagusittuko die etorkizun hurbillen. Gaur gaurkoz, ia txapelketa guztik jokatu dittuen Iñaki Alduntzin eta Unai Olanok, hasierako txapelketetako balorei eusten eta hok transmititzen itten ai dien ohargabeko lanak aurea jarraitzen do. Ez da betiko izanen bikote honen jardune, bizi legea da, beraz, aresti aipatutako pillotari kuadrilla horrei, etorkizuneko pillotari txapelketako balore hok eskualdatzeko zubi lana ittea egokittuko zaio. Kontun izan, lehia edo irabazteari, parte-hartze eta boluntariorza gallentzen bazaio, biziraupena ziurtatue izanen dula txapelketak.

Biziraupeneako beste faktore garrantzitsu bat plazan sortzen den giroa da. Aitortu beharra dauket plaza inguruk erreztasun haundik ematen dittola edozein ekintza burutzeko beño aipatzekoa da pillota



hotsa entzun orduko, ikuslea, nola gerturaten den partiduk jarraitzea. Leitze ezautzen ai dien turistek, plazan jolasten dabiltean umen gurasoak, pillotarin kuadrillekoak, ... batzuk zutik, bestek eserita, ... earra da frontis ingurue ikuslez inguratue eotea.

Bestalde, 30 urte pasata, Leitzar askon inkontzienten plazako txapelketa iltzatue daola esatea ausartuko naiz. Udaberri erdialdetik hasita pesta aurreko eunetaraño, Leitzarrak barneratue du pillota partidun bat eon littekela plazan ta hau pillota txapelketa egoera onean daon señaile da.

Idatzi hau bukatu aurretik, aipatu gabe ezittot utzi nahi, Aurrera K.E.-en babesen, txapelketan antolakuntzan funtsezko izan dien Juan Luis Aranburu naiz Joxe Mari Azpiroz. Udaberri ta udako lanbet askotan, iganden txistularik karrapen eoten zien bezela, atsalde osoa epaie eta antolakuntza lanetan gure mesedetako aittuk baitie. Gaur egun, txapelketak dauken osasun ona, heñ haundi baten eta Axier Gartzia emandako segida ahaztu gabe, hastapenetan indako lanen baitao.

Lurren, tizan launtzekin, tantoak apuntatzen zien garaiek joan zien. Etorkizun baten, siñesgaitzek iñen zaizkiun modutan kontatu behar badittu de, kontatu ditzaun, plazak pillota hotsan ohiartzune behar baito.

MIKEL IRIARTE ARTOLA, PLAZAKO PILLOTA TXAPELKETAKO PARTAIDE ETA ANTOLAKUNTZAKO KIDEA

Gabenara taldekoekin kontu-kontari



Pestak iritsi dira. Batzuentzako jai egunak izanen dira, baina askorentzat lana erruz egiteko egunak. Azken hauen artean ditugu musikariak. Aurtengo pestetan abuztuaren 12an, gauean Gabenara taldeak alaituko du Leitzeko plaza. Ea zer dioten taldekideek.

Arratsalde on koadrilla! kontu izeizeue leitzarrei nortzuk zareten

Gabenara taldea gara, sei kidek osatutako erromeria taldea. Hauetxek gara orain taldeko partaideak: Ana (abeslaria, panderojolea eta trikitilaria), Garazi (gitarrajolea eta abeslaria), Mikel (bateria), Mattin (baxularia), Maialen (trikitilaria) eta Julen (soinu teknikaria).

Nondik nora jarri zenioten taldeari Gabenara izena?

Gauarekin zerikusia zeukan izenen bat nahi genuen taldearentzat eta "Xaguxar" izena aproposa iruditu zitzaigun, gauetan alde batera eta bestera dabiltzanek baikara geu ere. Geure lehen kontzertua Xaguxar izenarekin eman genuen, Intzan. Egun hartan ordea, taldekide baten aitak Zubietan saguzarrei "gabenara" esaten zaiela esan zigun. Hara! izena gustatu eta haretxekin geratu ginen. Gainera, bigarren kontzertua Zubietan eman genuen eta bertan eman genuen izen aldaketaren berri.

Nongoak zarete?

Bakoitza punta batekoa! Gaur egun, Hendaia, Anoeta, Legasa, Barañain, Aldatz eta Leitza batuz Euskal Herri txiki bat osatu dugu.

Noiz hasi zineten plazetan elkarrekin jotzen?

Taldea osatu eta urte bete entseatzeko aritu ondoren, lehen kontzertua 2011ko irailean eman genuen, Intzako festetan. Orduan, trikitilaria, baxujolea eta abeslaria Araitz-Betelukoak ziren. Beraiena izan zen taldea sortzeko ideia. Hiruak trikitilariak ziren eta irakaslea zuten Nerea Erbitik lagundu zien hasiera ematen. Gero Garazi Leitzeko gitarrajolea sartu zen taldean, ondoren Lesakako Bateria jolea eta teknikaria ere Leitzarra, Fermin Erbiti "Pitulari"izeneko saltsero bat.

Pandemiak iraun zuen bitartean geldialdi luzea izan zenuten, ezta? nola eragin zuen?

Urte mordo daramatzagu jotzen baina pandemia eta honen ondorea gogorak izan ziren, "nahi eta ezin" horretan murgilduta. Bi urte geldirik egon ostean plazetara itzultzea ez zen batere erraza izan. Elkar ikusi gabe, ensaiatzeko aukerarik gabe eta gainera plazetako giro eder horretatik urrun egoteak itzulera zaildu zuen. Pandemia bitartean bizi seinaleak eta animoak bidali nahi izan genituen eta horretarako bideo pare bat egin genituen sare sozialetara igotzeko. Hori zen garai horretan jendearengana iristeko modu bakarra. Batean bakoitza bere etxetik ahal zuen bezala abesti bat joaz eta bestea plazetan ezagututako jendeen mezuez osatua. Batez ere azken honek jarraitzeko indar handia eman zigun.

Gainera, bi urte geldirik egoteak taldekide batzuen bideak aldatu eta taldea uztea eragin zuen eta pandemia ondoren 3 taldekide berrirekin hasi behar izan ginen (trikitilaria, bateria eta teknikaria). Berriz plazetara itzultzea guretzat ia hasieratik hasia bezala izan zen. Lehengo urteko maiatzean eman genuen lehenengo kontzertuan, duela 11 urte igarotako urduritasunak pasa genituen berriz ere!

Non jotzen duzue? Eta non ensaiatzen?

Gehien bat Nafarroan, eta batez ere Sakana eta Malerrera aldean. Beste probintzietan ere aritzea tokatu izan zaigu baina askoz gutxiagotan. Taldearen jatorria bera leitzen dagoela esan daiteke eta ensaiatzeko lekua ere bertan daukagu, Garaziren gurasoen etxean.

Euskal Herrikan kanpora irten al zarete jotzera?

Pandemia aurretik Legasan jotzen ari ginela katalan batzuk suertatu ziren bertan eta kontzertua bukatu orduko kontaktua eskatzera etorri ziren Vacarisseseko "Fiesta de la vaca" delakoan jotzeko. Pandemiaren ondorioz, atzeratu egin zen kontzertua, baino azkenean iaz jo genuen eta izugarria izan zen. Bertan Bizkaiko dantza talde bat eta Euskal Herriko txoko ezberdinetako gaitero eta erraldoiekin topatu ginen. Oso esperientzia polita izandu zen. Bertako jendea gure musika dantzatzeko ikustea eta beraien pesta ezagutu ahal izatea ederra izan zen.



Taldean neska batzuk jotzen duzue. Neska asko aritzen al da plazatan musika jotzen?

Orokorrean ez. Gure taldean 3 neska ditugu, baina ez da ohikoa hori ikustea. Hasieran baxularia neska bazen ere, oso zaila da baxularia, bateria eta teknika-ria neskak aurkitzea. Ohikoena neska abeslari bat ikustea da edo batzuetan trikitilaria. Baina ez da ohikoa gitarra elektrikoarekin, baxuarekin edo baterian neska bat ikustea. Eta are gutxiago teknikari lanetan. Ea honetan ere aurrera egiten dugun!

Kanpotik ofizio ederra dirudi zuena baina, festetan ere lan egitea tokatzen zaizue...gogorra al da?

Egun batzuetan bai. Agian beste parrandaren batekin batera jo behar denean gehiago kostatzen da festa herrian utzi eta beste herri bateko festetara joatea. Baina berehala ahaztu ohi da, momentuko parrandaren partaide bihurtzen baitzara modu batera edo bestera.

Zenbat denbora behar duzue ekipoa montatzeko?

Ekipoa montatu eta soinu proba egiteko gutxi gorabehera bi ordu behar izaten ditugu.

Eta biltzeko?

Ordu bete

Montatzen bi ordu, jotzen 4, biltzen beste ordu bat, bidaiak... Parrandarako tarterik geratzen al da?

Gustoko lekuan aldaparik ez dela esan ohi da ez? Ba hori... geu ere parrandazaleak gara eta gauean giroa jartzeaz gain, batzuetan eszenatokitik kanpo ibiltzea ere gustoko dugu. Agian nahi adina egiteko aukera ez dugu izaten baina tartetxoren bat izanez gero parrandara goaz seguru.

Bizitxerik bai al dago ofizio hontatik?

Ezinezkoa denik ezin da esan, baina zaila bai. Soilik plazako musikatik bizitzea zaila da eta beste lanpostu batekin bateragarri egitea ez da erraza. Geure kasuan behintzat argi ikusi dugu irakasle edo ikasle bizitzarekin bateragarria izan daitekeela, baina lanpostu horiez aparte konplexuagoa da ordutegiak eta egunak antolatzea.



Batera eta bestera hainbeste buelta emanda pasarte bereziak bizi izanen dituzue

Behin Leitzeko iñauteritan Karrapen jotzen ari giñen. Beti bezala, giro "tropikala" genuen. Bapatean ikaragarrizko kazkarabar-jasa bota zuen, plaza zuritu eta karrapera jende asko bildu zen. Halako batean, karrapen bildu zen jende guztia buelta eman eta plaza alde-bera begira ari zela ikusi genuen. Gu arrituta, beste alde-bera begira zertan jarri ote ziren pentsatzen hasi eta... iñauterietako ezusteko zirko horietakoa! Gazte batzuk dena emanez estilo xebleenarekin kazkarabarretan patinatzen ari ziren eta jakiña, jende guztia haiei begira barrez lehertzen ari zen. Festa eta iñauterietan halakoak tokatzen zaizkigu!

Motx-motxean

Musika talde bat; Gozategi, Esne Beltza, Huntza...

Kantu bat: Sumendiak, Zazpiak oihal batetik

Dantzatzeko leku bat: Malerreka, Bortziriak...

Parrandarako plaza bat. Doneztebekoa

Nolakoa da Leitzako pesta giroa? Earra. Iñauteritan berriz, gazte gutxi izaten da gurekin

Mezu bat Letzarrei pesetarako: Etorri gure kontzertura eta ongi pasa!

Tira, orain badakizue zeintzuk diren Gabenara taldekoak. Ea zer giroa jartzen diguten larunbatean plazan! Ez galdu hauen kontzertue!!

IBERO



Aurrera Dantza Taldearen partez, ESKERRAK

Leitzeko plazan 150 lagunekin dantzatzu bukatuko dugu aurtengo ikasturtea Aurrera Dantza Taldean eta ezer baino lehen, eskerrak ematea tokatzen zaigu. Afizioz egiten dugula argi dago, baina edozein proposamen luzatu eta beti erantzun paregabe bat jasotzeak, asko errazten ditu gauzak.

Orain dela bi-hiru hilabete proposamen erdi-ero batekin atera ginen, ahalik eta jende gehien biltzeko asmoz. Eta, beste behin, lortu dugu izugarritzko jendetza bildu, eta abuztuak 12 aspaldian eman ez den saio bat eskeintzea. Alegia, herrian dantzan ibili diren guztiak –edo gehienak– animatzea gurekin batera dantzatzeko. Osotara, 150 pertsona, 75 bikote ibiliko gara Leitzeko Ingurutxoan eta Lizarrako Larraindantza dantzatzu, herriaren babesarekin.

Galdetegi bat zabaldu ondoren, 170 pertsonatik gora erantzun ziguten, esanez noiz hasi ziren dantzan, nor izan zuten irakasle eta ze dantza ikasi zituzten. Eta uste dugu erantzunen berri emateak merezi duela, belaunaldiz belaunaldi finkatzen joan den errealitate bat delako: Leitzan badago dantzarako afizio bat, lehen ere bazegoelako. Eta espero dugu etorkizunera begira ere, herriko neska zein mutilak talde-erantzun batzen hastea.

Jaso ditugun erantzunetatik bada bat esanguratsua dena: dantza-klaseak orain dela 60 urte inguru hasi ziren gurean. Badugu erantzun bat esaten duena, gutxi gora behera, 1962. urtean hasi zela dantza ikasten. Badira hamarkada bat beranduago ere hasi zirenak, 1973, 1974 urteen bueltan hasi zirenak, hain zuzen. Garai hartan ohikoena Leitzeko Ingurutxoan eta Ezpatadantza ikastea zen, Luis Erbiti maisu zela.

70eko hamarkada bukaeran, eta 80eko hamarka hasieran beste belaunaldi bat hasi zen dantzan, herriko bi dantzez gain, beste hainbeste ere ikasteko asmoz. Garai hartan entzun ziren estreinakoz Leitzan



Larraindantzaren, Saskidantzaren, Lesakaren, Korte-seko paloteadoaren eta beste hainbeste dantzen doinuak. Luis Antonio Sagastibeltzak, Angel Alduntzi-nek, Iruñetik etortzen zen 'Attuna'k eta, batez ere, Pitulari eta Kontxi Zozaiak hartu zioten erreleboa ia hamarkada oso batez. Tartean ere ibili ziren 'Gipuzkoano' delakoa, Maite eta Sonia, edota Rakel Rodriguez irakasle lanetan.

Mende berriarekin aire berriak ere astindu zuten Aurrera Dantza Taldea, eta Joseba Sagastibeltzak eta Onintza Bengoetxeak ekin zioten erakusle lanari, dantza taldeko beste hainbestek lagunduz: Mikel Oronoz, Joanes Lasarte, Andrea Casares, Nahia Barriola... Dantza-estilo gehiago ere sartu ziren urte guzti hauetan, Korrontzirekin egin zen ikuskizuna edota Orantzaronan etorreran egiten den saioa, esaterako. Aldi hontan ere makina bat dantza-saio egin izan ziren Euskal Herri osotik, eta baita kanpoan ere: gozatzeko aukera izan zuten dantzariak gogoratuko dira ziur Marrakechera edo Txekiara egindako bidaietaz.

Gaur egun, Miel Olano dago irakasle lanetan, Nahia Escudero edota Asier Barriola dituela lagun, dantzari ttiki zein haundiei erakusteko asmoz. Dantza gehienak dantzatu dira iada, baina urtero-urtero ilusio berdinarekin ekiten diogu ikasturteari, udako saioa mimoz prestatzeko, urtean zehar ateratzen diren aukerei eusteko. Hori bai, beti argi edukita, izan orain dela 60 urte edo orain dela 15, Aurrera Dantza Taldeak aurrera jarraitzen badu, Leitzeko herriari esker dela. Beraz, beste behin, eta ez da inoiz nahikoa izango, eskerrak asko, zinez.

Gehiago luzatu gabe, plazan ikusiko dugu beti elkar, alai eta pozarren, eskuak gora ditugula, txistulariez lagunduta gure doinuak dantzatzu, hemendik, gutxienez, beste 60 urte igaro arte. Behondeizuela.

AURRERA DANTZA TALDEA

PLAZAOLA ALDIZKARIRAKO ERLETA ESKOLAKO 6.B mailako ikasleek egindako lanak



IRAIA SAGASTIBELTZA ZUNZUNEGI



MARKEL ALDUNTZIN



ALAI MARTINIKORENA



HAIDER RAJA



OIER ZABALETA



ETXAHUN SARALEGI



ANNE DE CASTRO



AMETS GEREÑO



ALEX BEREAU



ONGI PASATU LEITZAKO PESTAK!



Kaxkabeltzako elkartekide guzien izenean...

ADI AKADEMIA Tel: 680273544
ANE EGIZABAL FISIOETXEA Tel: 948 510730
AINART ILEAPAINDEGIA Tel: 948 510197
AITZIBER BERGARA MASAJISTA Tel: 646568753
ALLIANZ ASEGUROAK Tel: 948 510490, 657603435
AMAIA ARRAINDEGIA Tel: 948 510590
ANIKOTE LEITZA Tel: 948510719, 623266582
ANTEK ENTRENAMENDU PERTSONALIZATUA Tel: 671372662
ARIZTELA Tel: 948 610611
ARZALLUS HARATEGIA Tel: 948 510377
ASTITZ LIBURUDENDA Tel: 948 510262, 638012084
BELARRA BELARDENDA Tel: 948 510192
BI PAUSO OINETAKO DENDA Tel: 948 513611, 680187853
BIXIGARRI FRUTERIA Tel: 677345496
CATALANA OCCIDENTE Tel: 948 610685
EDR GUNE Tel: 669695167
ERBITI FARMAZIA Tel: 948 610636
LARRAYA FARMAZIA Tel: 948 510599
PLAZA FARMAZIA Tel: 948 510032
FRUITUAK ZE GOXO Tel: 948 610612
GARBI DROGERIA Tel: 948 510173, 626823104
GAZTELU ITURGINTZA Tel: 948 510086
GOXOGUNE Tel: 661543953
HERNANDORENA BURDINDEGIA Tel: 948 510055, 650255863
INAXIO PERURENA KIROMASAJISTA Tel: 649302307
IZASKUN ESTETIKA ZENTROA Tel: 638306110



Comercios
de Navarra
Nafarroako
dendak

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra
Diruz lagundutako jarduketa



TIBURTZIO DONEAREN PESTAK
ONGI PASA!

KAPRITXO Tel: 619450249
KULUNKA Tel: 948 498298
LANDA BERRI TABERNA Tel: 606599566
LEITZA GARAJEA Tel: 948 510466
LEITZA KIROLAK Tel: 948 610976
LIRAIN JANTZIDENDA Tel: 676737856
MAIMUR LIBURUDENDA Tel: 948 510146
MOKADUTXO Tel: 657774641
OGI BERRI Tel: 948 610974
OLAIA BAZARRA Tel: 948 510437
PERURENA HARATEGIA Tel: 948 510164
KAMPERBIDE Tel: 669707916
THE BARBER LEITZA Tel: 613149429
TXOKO TABERNA Tel: 948 510227
TXOKOSFERA Tel: 679699533
301K Tel: 620810803
URKIOLA HARATEGIA Tel: 948 510747
ZORTZIKO Tel: 948 510720, 618608209



ESKERRIK ASKO
LEITZAN EROSTEAGATIK!!

miara
de pasandego

Makilaje saloak ere egiten dira, aurrez hitzartuta

pesta onak pasa!

Kale Nagusia, 1 Behea
20492 Berastegi

tel. 943 683 697



LEIMEN

ERA GUZTIETAKO ELEKTRIZITATE LANAK

JAI ZORIONTSUAK DENOI!

LEITZA ☎ 628 725 396 (Argoitz)
MENDILLORRI ☎ 628 725 397 (David)

ESPEZIALISTAK

HERLIZ

Hemandorena Saizar Jon Ander Y 628055178
Lizarraga Lazcano Julian Maria 616491126
E71430334
Eibarren, 20, 1^o, 31560, Leiza, Navarra
leitzapladur@hotmail.com julenlizarra@hotmail.com

Reformas Vicente

Maxi Vicente

**Ongi pasa
pesta!**

606307810
maxivicente1@hotmail.com
C/Amazabal 17-2^a
Leitza

Gosariak, ogia, pastelak, pastak, tartak...



***Pesta onak pasa!**



**FONTANERÍA
DANI
ITURGINTZA**
Fontanería · Gasak · Berrizkuntza
672 18 31 99
iturgintzadani@gmail.com
LEITZA

ONGI PASA PESTAK!

**GURATZ-MENDI
ELKARTEA**

ongi pasa pesta!



Landa Behekoa, 4 · LEITZA

**ULI-ZAR
ELKARTEA S.L.**

iturgintza · calefazioa · gasa-gasoila
komuneko osagarriak · altzariak eta manparak

☎ 647 525 516 / 689 701 557
Bide-Ondo etxea · ARESO · Elgoien, 10 bajua LEITZA

CORENSO LEIZA S.L.

ONGI PASA PESTAK!



☎ 948 510 600 / 948 510 601 · Fax: 948 510 602 Eluseder industrialdea · ARESO



AISLAN-LEITZA S.L.

poliuretanozko babes eta injekziozko isolaketa

☎ 618 915 943
Santa Luzia pas., 4 B behea · Buztintxuri · IRUÑA

Leitzako gasolindegia

RAFAEL MUGICAREN ALARGUNA

☎ 948 510 057

EROSLE supermerkatua

Gora San Tiburtzioak!



☎ 948 510 007 / 948 610 657 · LEITZA

Arritxenea **APARTAMU
RURALA**



☎
607 655 061
678 477 528

Elbarren, 16
LEITZA

PESTA ONAK PASA! www.arrantxenea.com

Peluquería
Eguzki
Ileapandegia



☎ 628460603

Lidia Bildarraz
C/Elbarren 34,1A
Leitza 31880

✉ liidiabildarraz@gmail.com

MAPFRE LEITZA

Gerardo Arrupea Plaza

ongi pasa pestak!

☎ 948 510 499 · garrupe@mapfre.com



BEATRIZENEA
taberna · jatetxea

menua · otartekoak · kaxuelitak · pintxoak

PESTA ONAK IGARO!

☎ 948 510 991 · Mikel Deuna, 2 · LEITZA

MENDIGORRI ELKARTEA

pesta onak igaro!

Patxi Arrazola · Leitza

LB
landa-berri

DAIKE

obrak · etxebizitzak · erreformak · aurrekontuak · proiektuak

☎ 688 911 229 / daike@hotmail.com

pesta onak izan

Urto
karrozeria



TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK
JESUS AZURMENDI JAUREGI



ONGI PASA
SAN TIBURTZIOAK!

☎ 943 683 499 / 948 610 664
Kamineros etxea · BERASTEGI

Pintura lanak orokorrean



© 609 873 178 · LEITZA

Done Mikel, 1
© 948 610 909

eta zabalik!



JEIKI ABESBATZA

© 606 393 842
jeiki.leitza@gmail.com
jeiki abesbatza
jeiki_ abesbatza

Gora Santiburtziok



BULDAIN
inmobiliaria

FESTA EDER HAUETAN ZUEN NAHIAK BETE DITZAZUEN OPA DIZUET

PESTA ONAK PASA!

<http://buldain.blogspot.com>
© 948 510 534 / 649 476 615 · LEITZA

Javier Razkin
ASEGURUAK

Ongi pasa pestak!

© 948 510 338 / 674 745 563
Obispo Uharte, 8 behea · LEITZA

ARIZTIMUÑO ANAIK
ERAIKUNTZAK

Lan orokorrak eta berrikuntzak

ONGI PASA PESTAK!

© 948 510 202 / 948 510 374 · LEITZA

ORAIN ELKARTEA

jai zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei

LEITZA

Gaztañaga
taberna

OTARTEKOAK · PINTXO BEROAK · KAXUELAK

© 948 610 708

ongi pasa pestak!

Dabid Barriola **TAXIa**

9 PLAZA

Ongi pasa pestak!



Tel. 679 71 51 69 · LEITZA
E-mail: dabidtaxia@gmail.com

LEITZALARREA S.L.
aroztegi metalikoa

© 948 510 598 / 669 368 991
Landa industrialdea, 20 · LEITZA

Dia 

**OKABIO
KAFETEGIA**

SUPERMERKATUA

PESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!

☎ 948 510 731

Landa etxea · Leitza

DENAUTO SAGASPER TAILERRA

AUTO KONPONKETA



Eluserder Industrialdea
Poligono Industrial Eluserder

Tel.: 948 510 610
Faxa: 948 510 917

31876 ARESO
(Nafarroa)



☎ 948 610 888 / 630 048 770 · Fax: 948 610 863
Eluserder industrialdea, 1 · Areso (Nafarroa)

IZaTe
DIETISTA - NUTRIZIONISTA

Nutricionista - Dietetista - Ilkargi Nutritza-
Integritate eta plegak
JITZA / ARESO

📞 948 610 888 (Eluserder)
📧 izate@izate.net

ONGI PASA PESTAK!

**Bi
Lagun** 



bilagunleitza@hotmail.es

Tel./Fax: 948 610 985 · Iñurrusta Industrialdea / P2 · LEITZA

Arantxa
ILEAPAINDEGIA

GORA
SAN TIBURTZIOAK!



☎ 948 610 931 · Huarte Gozaina, 8



**TXOKO
TABERNA**



Tostadak - Razioak - Hanburgesak - Bokatak - Platerak

PESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!

Elbarren 22 LEITZA · Tel. 948 510 227

tantada
iturgintza



Imanol Echeverria 680 255 718
tantadaiturgintza@gmail.com

AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORRA
AEROTERMIA
EGUZKI PLAKAK
LURREKO SUAK

EGURREZKO GALDARAK
PELETTEKO GALDARAK ETA ESTUFAK
BIOMASA
ZORU BERO-EMAILEA
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Kornieta elkartea

Ongi pasa
San Tiburtzioak!

LEITZA

ORTIZ
FERRETERIA - PENTSUAK

Pesta onak
pasa!

Tel. 948 513 600
Landa industrialdea, 13
31880 LEITZA (Nafarroa)



Pesta zoriontsuak opa dizkizue!

Tel. 948 504 456 / 948 504 387
asador@galartza.com
www.asador.galartza.com

31879 BARAIBAR (Nafarroa)

**CARLOS
SAGASTIBELTZA
VILLANUEVA**

ARKITEKTU TEKNIKO
ARQUITECTO TÉCNICO

CERTIFICADO
PASADO POR
TRADEPERSON

TÉCNICO DE EDIFICACION
CERTIFICADO
PASADO POR



Landa Ind. - Landa eraikina 1 esk.
LEITZA

948 610 684 | 629 611 912

sagastibeltza@coaatnavarra.org

TALLERES **ONGI PASA PESTAK!**
Ireber S.L.

MANTENIMENDU PREDIKTIBOA
INDUSTRI MAKINERIAREN MONTATZE ETA KONPONKETA

Landa Industrialdea - Pab. 9B - 10B Leitza
Tel. 948 510 842 - 639 134 464 - Fax. 948 510 843



ARANTXA
taxi zerbitzua

660794326

arantxataxia@gmail.com

Ezinduentzat egokitua
9 Eserleku

Etxebizitza berriak

Edificaciones nuevas

Eraikinak zaharberritzea

Rehabilitación de edificios

Zureko solairu eta teilatuetan espezializatua

Especializados en suelos y tejados de madera

Diru-laguntza eskaerak

bideratzeko aholkularitza

Asesoramiento en tramitación

de ayudas económicas

Energia aurrezteko faktadak

Fachadas para ahorro energético

Igogailuak jartzea

Instalación de ascensores

Konpromisorik gabeko aurrekontuak

Presupuestos sin compromiso



PERURENA HARATEGIA

1974



ongi pasa pestaki!

Pintxo eta ogitarteko aukera zabala

© 677 721 688
Uhartē Gotzaina 2, LEITZA

LANDA HOSTALA HOSTAL RURAL
jatetxea restaurante



Lopenea

PESTA EDERRAK PASA!!!!
688640834



**PERITZA
TABERNA**

PESTA ONAK PASA!!

Atseden Gozo
GOZOTEGIA



Goxokiak, opilak, hot dog-ak, hamburgesak, bokatak, patatak, edariak...

Ondo pasa
SAN TIBURTZIOAK!!

📞 722108621



Leizako Udalak

**PESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE**

leitzarrei, bisitariei eta gurekin
egon ezin ahal izanen duzuen guztiei.

EREGI

Herri Lan eta Zerbitzuak · Obras y servicios

Landa industrialdea, 2 · LEITZA

info@eregi.com

**PESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE**

PESTETAKO GASTUEN ZERRENDA 2023KO AURREKONTUA

PLAZAKO MUSIKA	34.541,00 €
XAIBOR	1.045,00 €
TRIKIDANTZ	2.600,00 €
GOZATEGI	9.680,00 €
BASTARDIX	1.815,00 €
GABENARA	1.240,00 €
ZETAK	14.520,00 €
JOSELU ANAIK	2.541,00 €
ALARMA MOREA	800 €
KUXKUXTU	700 €
KIROLAK	7.600,00 €
HERRI KIROLAK	4.600,00 €
ADOS PILOTA PARTIDA	3.000,00 €
UMEENTZAT	4.633,00 €
TOBOGAN AKUATIKOA	2.383,00 €
JOKAI	1.250,00 €
SUZKO ZEZENA	1.000,00 €
BESTELAKO PROGRAMAZIOA	14.810,00 €
BERTSOLARIAK	2.060,00 €
GAITEROAK	1.200,00 €
TXISTULARIK	900,00 €
INCANSABLES	10.650,00 €
ZEZENAK	14.630,00 €
ARKITEKTURAREN ZIURTAGIRIA	200,00 €
ASIER ARRIZABALAGA	7.260,00 €
GIZARTE SEGURANTZA	320,00 €
HONDARRA BILTZEKO MAKINA	500,00 €
HONDARRA ETA PORTEA	1.000,00 €
MAPFRE (ERANTZUNKIZUN ZIBILA)	1.000,00 €
MAPFRE (ISTRIPUAK ETA BALIEZINAK)	500,00 €
MEDIKUA ETA ANBULANTZIA	3.500,00 €
UKULLUN ALOKAIRUA	350,00 €
OTORDUAK ETA OSTATUAK	8.800,00 €
HERRI APARIA	3.000,00 €
TXAKOLIA ETA BASOAK	1.300,00 €
JUBILATUEN BAZKARIA	1.000,00 €
OTORDUAK ETA OSTATUAK	3.500,00 €
PROGRAMA ETA PUBLIZITATEA	3.155,00 €
PROGRAMA	3.005,00 €
PROGRAMA LEHIAKETAREN SARIA	150,00 €
BESTELAKOAK	11.360,00 €
ARGINDARRAREN KONEXIOA ETA GASTUAK	1.000,00 €
GARBIKETA	1.500,00 €
KOMUNAK	1.210,00 €
SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES	1.250,00 €
SOINU ETA EKIPOA	6.400,00 €
GUZTIRA	99.929,00 €

Jaietan ere LGTBI+

Festek sozializatzeko era garrantzitsua dira, aisialdirako eta dibertitzeko garaia; nahitaezkoa da balioan jartzea eta aniztasun sexuala eta generokoa ereitea berdintasunezko gizarte bat sortzeko.

Pertsona guztiak berezi eta errepikaezinak gara.

Aniztasunak aberasten gaitu!

www.igualdadnavarra.es



ERASOTZAILEAK

STOP

LEITZA JAIA DA!

Unai Laso
Pelotaria

